



KULTURARTEKOTASUNA: KONTZEPTU-PROPOSAMENA ETA APLIKAZIO PRAKTIKOAK

Carlos Giménez





KULTURARTEKOTASUNA: KONTZEPTU-PROPOSAMENA ETA APLIKAZIO PRAKTIKOAK

Carlos Giménez



ikuspegi
Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

Testu hauek ondorengo argitalpenean argitaratu ziren lehenengo aldiz:

Intercultura e Mediazione. Teorie ed esperienze. Koord. Giuseppe Mantovani. Carocci Editori. Roma 2008

Argitaraldia: 2010eko maiatza

Ale-kopurua: 500 ale

Argitaratzailea: Ikuspegi. Immigrazioaren Euskal Behatokia

Inprimatzea: ITXAROPENA, S.A.

Araba kalea, 15. 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

ISBN: 978-84-9860-383-5

Lege-gordailua: BI-1419-2010

Aurkibidea

| | |
|---|----|
| KULTURARTEKOTASUNA | 5 |
| <i>Sarrera</i> | 7 |
| 1. Ikuspegia ontzen: kulturartekotasuna kategoria orokor gisa | 9 |
| 2. Proposamen kontzeptualak formulatzen: kulturartekotasunaren espezifikotasuna | 19 |
| <i>Ondorioa</i> | 29 |
| <i>Bibliografia-erreferentziak</i> | 31 |
| KULTURARTEKOTASUNAREN IKUSPEGIAREN APLIKAZIOAK: Politika publikoak, eskola, bitartekaritza, auzoak eta gizabidea | 35 |
| <i>Sarrera</i> | 37 |
| 1. Aplikazioa politika publikoetan | 39 |
| 2. Aplikazioa eskola askotarikoan | 43 |
| 3. Aplikazioa testuinguru kulturanziztunetako bitartekaritza | 49 |
| 4. Aplikazioa auzoetako bizikidetzaren aldeko lanean | 53 |
| 5. Aplikazioa herritarren hezkuntzan | 57 |
| <i>Aplikazio-prozesuari buruzko azken oharra</i> | 61 |
| <i>Egilearen lanak (testuan aipatuak)</i> | 63 |

KULTURARTEKOTASUNA

Carlos Giménez Romero

Antropologia sozial eta aplikatuko katedraduna eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Migrazio, Etnizitate eta Gizarte Garapeneko Institutuaren (IMEDES) zuzendaria

Laburpena: Kulturartekotasuna, kultura-aniztasuna kudeatzeko eredutzat harturik, gizarte oso-arekiko aldarrikatu behar da, edozein gizarte-motarekiko, gizarte bakoitzaren kultura-aniztasuna edozein eratakoa eta mailatakoa dela ere. Gizartearen gaineko edozein ikuspuntu arauemaile eta balioespenezkorekin gertatzen den moduan, eztabaida- eta kritika-prozesu baten bidez baino ezin da kulturartekotasunaren ikuspuntua finkatu. Proposamena da kulturartekotasuna kultura-pluralismoaren eredu berritzat hartzea, eta aurrekoa, kultura-aniztasuna alegia, modu kritikoan osatzea eta ordezkatzeta.

Sarrera

Migrazio eta indigenen testuinguruaren harira egileak kulturartekotasunari buruz egindako lanen sintesia biltzen da testu honetan. Beste kapitulu batean jorratuko dira kulturarteko ikuspegiaren aplikazioak. Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Migrazioa eta Kultura-aniztasuna programaren baitan egin dira lanok, 1989az geroztik. Gizarte esku-hartzean diharduten aditu eta profesionalak eta gure talde-esperientzia eta ikuskera ezagutu nahi duten eragileek eskatuta sortu da sintesi hau egiteko ideia.

Immigrazioari buruzko lanetan eta kulturartekotasunerako hezkuntzari buruzko eztabaidetan gure ibilbide intelektuala nola abiatu zen azaltzen da lehen atalean, bai eta kultura-aniztasunari eta kulturartekotasunari buruzko eztabaidarekin kulturarteko ikuspegia nola garatu zen ere. Eztabaida horretan, aholkulari-lanetan jardun zuen egileak Guatemalan. Bigarren atalean, *kulturartekotasunari buruzko ikuskera* kontzeptu bidez nola oinarritu zen aztertzen da, eta 1996. urteaz geroztik argitaratutako lanak jasotzen dira.

Kulturartekotasuna, kultura-aniztasuna kudeatzeko eredutzat harturik, gizarte osoarekiko aldarrikatu behar da, edozein gizarte-motarekiko, gizarte bakoitzaren kultura-aniztasuna edozein eratakoa eta mailatakoa dela ere. Gizartearen gaineko edozein ikuspuntu arauemaile eta balioespenezkorekin gertatzen den moduan, eztabaida- eta kritika-prozesu baten bidez baino ezin da kulturartekotasunaren ikuspuntua finkatu, eta, alde horretatik, egileak agerian utzi nahi du ikuskera horrekiko Europan nagusi den jarrera akritikoa. Proposamena da kulturartekotasuna kultura-pluralismoaren eredu berritza hartzea, eta aurrekoa, kultura-aniztasuna alegia, modu kritikoan osatzea eta ordezkatzeta.



IKUSPEGIA ONTZEN: KULTURARTEKOTASUNA KATEGORIA OROKOR GISA

1987an, Santa Barbaran, Kaliforniako Unibertsitatean nazioarteko migrazioen gaiari buruz lanean hasi ginelarik, munduko hainbat lekutan kultura-aniztasunaren paradigmatic kulturartekotasunera jauzi egin zen hainbat alorrean, hala nola hezkuntzan, komunikazioaren teorian, bitartekaritzan, gizartelanean eta filosofian¹. 1980ko hamarkadaren amaieran, ikuspegi horrekin bat egin genuen, migrazioari eta garapenari buruzko hainbat ikerketarekin, baina Guatemalan eman genuen aurrerapausoa, 1990eko hamarkadaren erdialdera; han, kritika handia egin zitzaion kulturarteko ikuspegiari, baina, kritikaz gaindi, ikuspegia funtsatzea lortu genuen.

Kulturartekotasuna nabarmentzeko ahalegina fintzen, osatzen eta ontzen joan da nire lanean eta taldean, Migrazioa eta Kultura-aniztasuna programako bitartekaritzarako eta baterako garapenerako ildoetan aplikatzen joan garen heinean. Nire jardunean, migrazioaren gaiari loturik hasi nintzen kulturartekotasuna aztertzen; ondoren, Amerikako herri indigenei loturik landu nuen, eta, uneotan, nire lanaren funtsa da ikustea kontzeptu hori zenbateraino izan daitekeen bizikidetzatza demokratikorako baliagarri erkidegoen Espainia deszentralizatuan, zenbateraino izan daitekeen herritarren kohesiorako baliagarri Europar Batasunean, eta zenbateraino izan daitekeen *kulturen arteko elkarrizketa* bultzatzeko baliagarri munduan.

Kulturartekotasuna kategoriak zentzurik izatekotan, gizarte osoa biltzen duelarik du zentzua: ez da soilik “etorkinen eta etorkinentzako gaia”, “indigenen eta indigenentzako kontua”, “gutxiengoan edo gutxiengoentzako afera”, aloktonoak edo bertakoak izan. Alabaina, gauza bat da hori azaletik barneratzea, eta beste bat ideia totalizatzaile hori azken mugaraino eramatea. Kulturartekotasunaren kategoria zabaltzea eta kulturartekotasuna unibertsalizatzea eskutik doaz: gizarte-mota guztietarako, nazioz gaindiko unitate guztie-

¹Idea hori garatzeko, ikusi Malgesiniren eta Giménezen lana (2000), 2000, 253-258, eta amaieran emandako bibliografia.

tarako eta gizateria osorako baliagarri eta erabilgarri izan daiteke kulturartekotasuna, eta halaxe mamitu behar da. Baieztapen hori ez da ez begien bistakoa, ez eta samurra ere, eta eztabaida intelektualerako eta gatazka ideologikorako gaia da, nola ez.

I.1. Hasierak: kulturartekotasuna eta immigrazioaren erronka

Nekazaritzan lan egiten zuten atzerriko langileen zenbait gunetan azterketa batzuk egin ondoren, Madrilen beste bi ikerketa egin nituen, bata panoramikoa eta bestea hezkuntzaren arlokoa, eta ikerketa horien bidez hasi nintzen kulturartekotasunaren proposamena aintzat hartzen bertakoen eta jatorriz atzeritarrek direnen artean etnia-harreman positiboak bideratzeko.

Madrilgo Erkidegoko Gizarte Integrazioarako Sailak agindu zigun aurreneko lana: garrantzi publikoa hartzen hasia zen fenomeno baten gaineko diagnosis. Diziplina anitzeko hamalau profesionalak osaturiko talde batek egin zuen lan hura 1991 eta 1993 artean, artikulua honen egilea zuzendari zutela. Eduki aldetik teorikoa eta praktikoa izan zen lana, eta hasierako bi helburuak erabat bete ziren: Madrilen immigrazioaren panorama zientifikoa eta soziala zein zen aurkeztea eta integrazioarako gizarte-politikak diseinatzeko oinarriak ematea. Ondorio nagusia, “sinplea eta, aldi berean, erronka handia”, hauxe izan zen: Madrilgo eskualdea “bidegurutze batean”, “garrantzi handiko unean edo etapen” zegoen, eta administrazioak eta herritarrek bi bide zituzten aukeratzeko: “edo *bazterkeriaren bidea*, edo *integrazioaren bidea*” (Giménez, 1993 a, 16, azpimarra jatorrizko idatzikoa da).

Bigarren bideari buruz, hauxe nabarmendu zen: “aldiz, *integrazioaren bidea*” hartzen bada, gizarteko beste hainbat talde gizarteko kideztat onartuko dira, eta haien integrazioa bultzatuko da, eskubide- eta baldintza-berdintasunean, lege, lan, bizileku, familia, eskola, gizarte eta kultura aldetik; era horretara, Madrilak gizartearen beste zati bat bilduko du bere eguneroko bizimodura. Hala, Europan eta munduan gizarte hiritar eta metropolitarraren eredu izatea lortuko du Madrilak, gizarte kulturantzuna izateagatik (hainbat etnia-identitate elkarrekin eta onarpen eta eskubide aldetik berdintasunean existitu daitezkeen heinean), eta hori bada zerbait, eta baita *kulturartekoa* izateagatik ere (talde etniko batzuk eta besteak elkarrekin bizi eta elkarrekin harremanetan jartzen diren neurrian)” (idem, 16-17, azpimarra jatorrizko idatzikoa da). Ordurako jada bereizi egiten ziren *kulturantzuna* eta *kulturartekoa*, baita *elkarrekin existitzea* eta *elkarrekin bizitzea* ere; gerora garatu nituen elkarren aurkako termino horiek. Kulturartekotasuna jomuga desiragarritzat agertzen da, kultura-aniztasunaren eredu osagarritzat, pertsonen arteko harremanari eta bizikidetzari loturiko egoeratzat.

Kulturarteko planteamendua gutxi garatu zen ikerketaren txostenetan. “Ikuspegiak, inplikazioak eta gomendioak” atalean agertzen da, bai eta “Kulturarteko integrazioarako politika baten oinarrien” formulazioan (lehen liburukia, 115-132). Testu horretan, proposamena egiten den atalean agertzen da kulturartekotasunari buruzko aipamena, eta logikoa delakoan nago; izan ere, terminoa balioespenezkoa eta arauemailea da. Nolanahi ere, gerora jabetu nintzen horretaz. Kulturartekotasunari buruzko nozioa, *izan beharra* gisa ulerturik, ez da oso erabilgarria gizarte-harremanen ikerketa zientifikorako eta sozialerako; hala-koetarako, etnien arteko harremanak edo kulturen arteko harremanak dira baliozko kontzeptuak. Kulturartekotasuna garrantzitsua da eragileen diskurtso eta proposamenak aztertzeke eta gizarte-zientzia aplikatutik proposamenak egiteko.

Baina proposamen- eta aplikazio-atal horretan ere ez da ia garatzen kulturartekotasun desiragarriari buruzko ideia. Integrazioaren gizarte-politika mota bat gomendatu zen, eta “kulturarteko integrazioarako politika” esan zitzaion; baina, politika publiko horren printzipioak, edukiak, eragileak eta jarduera-ildoak azaldu zirenean (115-132. or.), kulturartekotasunaren alderdia aipatu besterik ez zen egin hezkuntzaren alorrean eta topaketa-guneak sortzeko proposamenean.

Kulturartekotasunari buruzko ikuspegira eraman ninduen bigarren lan-ildoak hezkuntzaren arloan garatu nuen: 1992-1996 urteetako eskoletan atzerriko zenbat ikasle zeuden aztertu nuen, bai eta epe hartan kulturarteko hezkuntzari nola heldu zitzaion ere. *Kulturarteko hezkuntza* indarra hartzen ari zen, eta *hezkuntza kulturantzuna* ordezkatzen; izan ere, 1970eko hamarkadan, artean nagusi zen *hezkuntza kulturantzuna* Kanadan, Ingalaterran eta beste herrialde batzuetan. Irakasleak hausnartzen hasi ziren zer eragin izan zezaketen kulturarteko hezkuntzaren planteamenduek hainbat alderditan, hala nola ikastetxearen hezkuntza-proiektuan, curriculumak doitzeko eta birformulatzeko ahaleginean, ikasgelako egitarauan, irakasleen prestakuntzan (birziklatzea) edo antolakuntzari loturiko alderdian (jatorduak egokitzea, esaterako). Pedagogoen irakurketa funtsezkoa izan zen jabetzeko zein garrantzitsua izan daitekeen kulturarteko hezkuntza, bai eta kontzeptu hori hezkuntza kulturantzunetik bereiztea ere. Mendebaldeko European hezkuntza kulturantzunari buruz argitaratutako eskuliburuak berrikusi ziren urte haietan. Bereziki erabilgarria izan zen Besalúk eskola-paradigmak bereizteko egin zuen sailkapena: hala, eskola arrazistak edo segregazioaren aldekoak, asimilazioaren aldekoak, integrazioaren aldekoak, pluralistak, kulturantzunak eta kulturartekoak bereizi zituen. Ikerketa enpiriko eta bibliografiko haiek oinarritzat baliatu nituen kulturarteko hezkuntzari buruzko hitzaldi eta mintegietan. Hitzaldi gehienak irakasleei berei eman nizkien.

Kultura-aniztasunaren eta kulturartekotasunaren paradigmak elkarrengandik banatzen joan ginen. Kulturarteko hezkuntzari buruzko hitzaldi batean (1993ko

ekainean) esan genuenez, “bitxia da kultura-aniztasunari eta kulturartekotasunari buruz kezkatzeko akuilua immigrazioa izatea”. Orduko Espainian, 800.000 pertsona ziren atzerritarrak; tokitan zeuden, beraz, gaur egungo 5 milioiak. Eta horrek zekarren arriskuaz ohartarazteaz bat, hauxe adierazi genuen: “Kulturarteko hezkuntza (...) *guztiontzako* mugimendu pedagogiko gisa ulertzen dugu (...) ez soilik etorkinentzako eta gutxiengo etnikoentzako hezkuntza-proposamen gisa, baizik eta gizarte osoarentzako proposamen gisa. Arazoak dituzten taldeetara, berdintasuna behar duen taldeetara, gutxiengoan dauden taldeetara mugatzen bada kulturarteko hezkuntza, erabateko porrota izango da... Kulturarteko hezkuntzaren benetako erronka gehiengoaren kultura da; geu gara. Kulturarteko hezkuntza egin behar bada, gehiengoarentzako egin behar da nagusiki” (1993 b, 26, azpimarra gehituta).

Uste hori indar hartzen joan zen, proposamena behin eta berriro etorkinen presentziara mugaturik zegoela egiaztatzen joan ginen neurrian. Jarraitu genuen azpimarratzen kulturarteko hezkuntzak gizakien kultura-aniztasuna balioesten duela, “[aniztasun hori] bere horretan zer edo zer positiboa dela, baina desberdintasunak nabarmendu gabe, aintzat izanda uneoro planteamendu sozioekonomiko askoren bidez berdintzen direla helduak” (idem). Horra hor ideia nagusi bilakatutako beste enfasi bat: desberdintasunak ez puzteko beharra, eta elkartzen gaituena, batzen gaituena, klasearen osagaiak eta gizarte-egoera aintzat hartzeko premia.

Madrilgo Erkidegoko Immigrazioarako Gizarte Bitartekarien Eskolak (EMSI) argi eta garbi erakutsi zigun kulturartekotasunaren ikuspegia kontzeptualizatzeko aurrerapausoak eman behar zirela. PMM-UAMko taldeak hartu zuen 1994an eskola hura diseinatzeko eta lehen bi urteetan (1995-1997) zuzentzeko ardura. Kultura askotako jendeak parte hartu zuen osoko bilkura, lantegi eta elkarrizketetan, eta horrek ikuspegi berriaren oinarriak lantzeko bidea eman zuen. Gogoan dut, adibidez, begiraleetako batek laino-laino esandakoak nola eragin zidan: “Kulturartekotasunean, alde komuna berresten da”. Orain begien bistakoa dirudi, baina orduan ez zen horrela inondik inora, eta gaur egun ere ez, terminoa azaletik erabiltzen duten askorentzat.

1.2. Aurrerapauso nabarmena: kulturartekotasuna eta indigenen gaia

1996. urtearen amaieratik 2000. urtera, aholkularitza-, prestakuntza- eta ikerketalanak egin nituen Guatemalan. 1996an, Herri Indigenen Identitatearen eta Eskubideen Hitzarmena (AIDPI) sinatu zen, eta lan eskerga egin beharra zegoen itun hura hainbat alorretan abian jartzeko (izenari, janzkerari eta abarri lotu gabeko eskubideak; indigenen eta haien agintarien ohiturazko zuzenbidea; hizkuntza-aniztasuna eta epaitegietan interpreteak egotea; leku sakratuen kudeaketa...).

Hain zuzen, testuinguru hartan eskatu zidaten lan egiteko. Aurrez etnien arteko harremanen eta arrazakeriaren kontrako eta kulturarteko gizarte-politiken gainean jardun nuen lanean, eta pentsatu zuten nire esperientzia baliagarri izan zitekeela. Madrilgo Unibertsitate Autonomoak abian jarri zuen Garapen Iraunkorraren Kudeaketaren maisutza parte hartu nuen (Casaus eta Giménez, 2000 b). Nazioarteko aholkulari gisa hasi nintzen Nazio Batuen Garapenerako programak (NBGP) Guatemalan abiatu zuen Q'anil Proiektuan; *Kulturartekotasuna, politika publikoak eta giza garapen iraunkorra* zuen ardatz programak. Bost urte izan ziren harat-honat bidaiatzen eta joan-etorri etengabea, proiektuak diseinatzen, herrialde osoan bilerak egiten, hainbat lanbide, identitate eta ideologiatako pertsonak ezagutzen, adiskidetasunaren lokarriak estutzen... asko ikasten.

Q'anil Proiektuaren helburu eta jardueretarako beharrezkoa zen kontzeptu nagusiaren oinarriak finkatzea, baita beste politika publiko batzuk lantze aldera kontzeptua politika horietan jasotzea ere. Q'anil Proiektuan, indigenen eta ladinoen profesional-talde bikaina ari zen lanean; talde hori dinamizatzeko enkargua jaso nuen lan horren oinarriak kontzeptu eta praktika aldetik finkatzeko. Kulturartekotasunari buruz zehaztuko genuen ikuspegia edozein izanik ere, ikuspegi horrek Guatemala berria eraikitze balio behar zuen. Atsegin handiz parte hartu nuen hausnarketa haietan, eta lan haren emaitzak jauzi kontzeptual bat ekarri zuen. Ordura arteko pentsaeran ez zen batere eztabaidarik izan kulturartekotasunari buruz, eta, prozesu haren ondoren, berriz, eztabaida biziak, parte-hartze handiak eta lan adostuak beste pentsaera bat ekarri zuen. Eztabaida eta prozesu hura hitzaldi batean kontatu nuen, eta hitzaldi huraxe baliatuko dut ondoko lerrootan, labur-labur azaltzeko nola igaro ginen kulturartekotasunari buruzko pentsaera adostu horretara:

“(…) kulturartekotasunari buruz egin nuen planteamendua zela-eta buruzagi eta intelektual indigena batzuegandik jasotako kritikaren bidetik etorri zen ikasketa horren zati handi bat. Eta, orobat, Europakoaren aldean gizarte- eta politika-testuinguru erabat bestelakoan arrazoitu behar nuelako ikuspegia; izan ere, testuinguru hartan, herrialde indigena maiaren erresistentzia historikoa eta gaur egungo mobilizazioa izan zen elementu funtsezkoetako bat”.

Nondik zetorren kritika hori? Nondik zetozen Guatemala berria eraikitze aldera egokiena izan zitekeenari buruzko eztabaida (kultura-aniztasunari loturiko planteamendua, ala kulturartekotasunarena) mamitu zuten terminoak? Etnia eta hizkuntza aldetik hainbat komunitatetako (quicheak, cakchiquelak, quekchiak, eta abar) buruzagi indigena maien planteamendu oso baliotsuetatik. Planteamendu hura, nolabait laburtzearen, honela sintetizatuko nuke: “Guk, Guatemalako indigena maiok, bazterkeria jasan dugu mendetan eta mendetan, eta estatu arrazista bat dugu parean; guretzat, kultura-aniztasunaren ikuspegia hil ala bizi-

koa da, berdinetik berdinerera Estatuarekin hitz egin ahal izateko eta baldintza zuzen eta bidezkoetan gizarte honetan lekua izateko; izan ere, etniak berrestea nabarmentzen du kultura-aniztasunaren ikuspegiak, geure buruaren estimua azpimarratzen du, eta berdinen arteko harreman etnikoak nabarmentzen ditu. Oztopoak oztopo eta nekeak neke, 500 urtean eutsi diogu kultura indigenari; erresistentzia indigena egon da ahalegin horren atzean. Horrenbestez, kultura-aniztasunaren premia dugu, betidanik defendatu izan dugun identitate eta kultura desberdin hori onartzea goesten duelako kultura-aniztasunak”. Q'anil Proiektuan planteatzen ari ginenarekiko kritika zekarren, hortaz, ikuskera hark, eta aurreko sintesiak ondorio bakarra izan zezakeen: “Horrenbestez, proposatzen duzuen kulturartekotasuna ez da baliagarria Guatemalarako”.

Guatemalako intelektual nabarmen batek, maia cakchiquela baitzen, maien mugimendu indigenari buruzko hainbat liburu idatzitakoa, hiru arrazoi eman zizkigun kulturartekotasunaren ikuspegia Guatemalarako ez zela baliagarria azaltzeko. Harrituta utzi gintuen, egia esan. Gutxi gorabehera, honako hauek izan ziren haren hitzak. Kontrako lehen arrazoiak: kulturartekotasuna etorkinei loturik jaiotako da Europan, etorkinak integratzeko politiketarako europarrok asmatutako zerbituak; Guatemalan, indigenak ez gara etorkinak, bertako jatorrizko biztanleak baizik, eta guk ez dugu “integraziorik” nahi baztertzeko, esplotatzeko eta bereizteko gaituen gizarte batean; guk indigenentzako errespetua eta gure herrirentzako autonomia nahi dugu. Beraz, horregatik besterik ez bada ere, ikuspegi hori oso kaltegarria da.

Bigarren arrazoiak: ezin da kulturartekotasunik egon desberdinen artean, inolaz ere ez hain egoera desorekatuan dauden desberdintasunen artean. Nola egongo da bada [kulturartekotasuna] botere guztia daukanaren eta ezer ez daukanaren artean, baztertzeko duenaren eta baztertuaren artean? Horra gure solaskidearen galdera. Nik, lehenik eta behin, errespetatua izatea behar dut, kultura-aniztasunak esaten duen moduan, eta gero ikusiko dugu kulturarteko bide horri heldu nahi diodan ala ez...

Hirugarrenik, Guatemalan, boterea dutenen estrategia da kulturartekotasuna, iraultzailea eta azpiratua baitartzeko eta, modu horretara, hura hobeki menderatzeko estrategia. Hain zuzen ere orain, mugimendu indigena indar hartzen ari den honetan, hain zuzen ere orain, gure eskubideak aldarrikatzen ari garen honetan agertu da kulturartekotasun dohatsuaren bostekoa” (2002 d, 153-155 or.).

Horraingo kritikak. Hitzaldi hartan, honela azaldu nituen kritika haiei emandako erantzunak. “(...) Kritiken aurrean eztabaida zintzoa eta lagun artekoa eskatu nion, eta gogotik eskertu nizkion kritikak, horrela egiten baita aurrera. Uste dut egun hartan berean, 1996an nonbait, erabaki nuela kulturartekotasunaren bidea hartzea. Ulertu nuen Europan, oro har, oso modu *light* edo leunean ari

garela hitz, termino, kontzeptu edo adiera hori erabiltzen, inolako kritikarik gabe, “ona baita kultura guztiek elkar ulertzea” arrazoituta, finean hori baita kulturen arteko harremana. Baina ahalik eta modu argiengan ikusi behar dugu zer esan nahi dugun horrekin guztiarekin.

Ezin dugu hemen gehiegi sakondu egindako kritika haien erantzunean. Laburbilduz, jabetu ginen ikuspegi osoagoa eraiki beharra zegoela etnien arteko harremanari buruz: “arazo etnikoa” bertako gutxiengoena edo gutxiengo nazionalena zen egoeretarako eta gutxiengo aloktonoak edo kanpotik iritsita-koak zeuden egoeretarako, bietarako, balioko zuen ikuspegia.

Bigarrenik, egia da, kulturartekotasunerako beharrezkoak dira berdintasuna, elkarrizketa eta negoziazioa eta, horrenbestez, alde guztiak solaskidetzat onartzea. Baina gizartean erabateko berdintasuna beharko balitz horretarako guztirako, ez kulturartekotasuna, ez kultura-aniztasuna, ez eta beste planteamendu asko ere ez ziratekeen bideragarriak izango. Gizarte osoan ez bada ere, eremu batzuetan badira baldintza horiek, eta baliatu egin behar dira planteamendu kulturartekoaren bidez aurrera egiteko. Parte hartu nuen bileretako batean, pentsamoldea hau entzun nuen: “gaur, kultura-aniztasuna; bihar, kulturartekotasuna”. Frankismoaren kontrako borrokan ezkerrek ekarritako planteamendu batzuk ekarri zizkidan gogora: “lehenbizi, herriaren demokrazia” eta “gero, baldintzak betetzen direnean” lan egingo dugu, esaterako, gizon eta emakumeen berdintasunaren alde edo ingurumena errespetatzearen alde.

Gobernuek kulturartekotasuna balia dezaketela talde indigenen eta, oro har, azpiratutako kolektiboen autonomia-eskakizunen aurrean iniziatiba hartzeko? Inork ezin dezake uka eragileetako bakoitzak erabili, tresnatzat hartu eta desitxuratu egin ditzakeela bai proposamen hau eta bai beste edozein, eta gobernuak beti direla eragile nagusietakoak. Baina horixe bera gertatzen da kultura-aniztasunarekin ere. Gaur egun, honako hauek dira kulturartekotasunari buruzko ikuspegiaren aldeko beste arrazoi batzuk: “a) besteek erabil badezakete, eman diezaiozun orduan eduki egokia berdintasuna lortzeko, b) ez du zertan kultura-aniztasunaren kontrakoa izan, haren osagarria baizik (duela gutxi Sartorik planteatutakoaren kontra, 2001), eta c) kulturartekotasunaren planteamendua eginik, nazio osorako proiektua aurkezten dute talde indigenek, eta ez soilik etnien esparrurako egitasmoa” (Giménez, 2002 d, 155-156 orrialdeak).

Horra, bada, 1990eko hamarkadaren hondarrean Guatemalan izandako eztabaidari buruzko aipamena. Saiatu naiz erakusten kulturartekotasunari buruzko kontzeptua bera eta kontzeptu horrek kultura-aniztasunarekin duen lotura ez dela aurrez emandakotzat edo begi-bistakotzat jo behar; aitzitik, eremu ideologiko bat dela eta eremu horretan hainbat ikuspegi daudela (baita elkarren kon-

trakoak ere) agertzen ahalegindu naiz. Nire esperientziak erakutsitakotik, esan dut aurrez ere, planteamendu kritikoei erantzuteko behar horri esker egin nuen aurrera kulturartekotasunaren proposamena ontzeko bidean.

1.3. Kultura-aniztasunari eginiko kritikak eta terminoak argitzeko proposamena

2001. urtean, Sartoriren *La sociedad multiétnica* lana (*Gizarte etnia-aniztuna*) argitaratu zen. Kultura-aniztasunaren kontra egiten du erabat, eta mendebaldeko pluralismo demokratikoaren kontrakotzat agertzen du. Kritika horrek eragina izan zuen Azurmendiren zenbait adierazpenetan (Etorkinen Integraziorako Espainiako Foroaren presidentea zen garai hartan Azurmendi), eta, hala, besteak beste esan zuen kultura-aniztasuna “gangrena bat zela gizarte demokratikorako”. Horrek guztiak nahasmen handi samarra sortu zuen Espainian.

Bitxia izan zen, Guatemalan, Espainian eta beste herrialde batzuetan kultura-aniztasunaren planteamenduak dituen mugak eta distorsioak azaltzen urteak eta urteak egin ondoren, planteamendu horren alde on ugariak defendatzen ikustea neure burua. Ez, ez da kontraesana, ez eta jarrera anbigua ere, eta are gutxiago ikuskera bikoitza. Kontua da kulturarteko ikuspegiaren sorrera ulertzeko eta haren oinarriak finkatzeko, beharrezkoa dela kultura-aniztasunari eta haren mugei eginiko kritiketatik abiatzea (horri buruzko xehetasun bat kontsulta daiteke Malgesinik eta biok 1997an egindako lan batean).

Kultura-aniztasunaren mugimendu osoa eta haren muina ezbaian jartzen delarik –halaxe egiten baitu Sartorik–, ezinbestekoa da esatea “ez dela haurra bota behar ura zikina dagoela” (Giménez, 2002 b). Orduko hartan terminoak argitzeko egin nuen proposamena sartuko dut lanen antologia honetan (Giménez, 2003 a):

| 1. Eskema <i>Termino eta kontzeptuen proposamena</i> | | |
|---|---|--|
| Maila erreala edo gertaeren maila ZER DEN | KULTURA-ANIZTASUNA = kulturen aniztasuna (hizkuntzen eta erlijioen aniztasuna) | KULTURARTEKOTASUNA = etnien arteko harremanak (hizkuntzen artekoak, erlijioen artekoak) |
| Arau-maila edo proposamen sozio-politiko eta etikoen maila ZER IZAN BEHARKO LUKEEN | KULTURA-ANIZTASUNA Desberdintasuna onartzea 1. Berdintasunaren printzipioa 2. Desberdintasunaren printzipioa | KULTURARTEKOTASUNA Bizikidetzaren aniztasunean 1. Berdintasunaren printzipioa 2. Desberdintasunaren printzipioa 3. Eragin-truke Positiboaren printzipioa |
| | 1 Aldaera | 2 Aldaera |
| | KULTURA-PLURALISMOA | |

Proposamena bi irizpide edo ideia nagusitan oinarriturik dago: maila erreala eta arau-maila elkarrengandik bereiztea, eta kultura-aniztasuna eta kulturartekotasuna aldaeratzat hartzea kultura-pluralismoaren paradigmaren baitan.

PROPOSAMEN KONTZEPTUALAK FORMULATZEN: KULTURARTEKOTASUNAREN ESPEZIFIKOTASUNA

Alda dezagun hizkera eta has gaitezen gertaeren segida eta prozesua bera azaltzetik kulturartekotasunaren sinkronia eta egiturazko alderdiak aztertzen; alegia, has gaitezen, kulturartekotasunaren oinarri kontzeptualak, soziopolitikoak eta etikoak zerrendatzen eta azaltzen, edo gutxienez oinarri horiek nik ulertzen ditudan moduan azaltzen. Egin ditzagun hiru urrats, orokorrenetik hasi eta zehatzenera eta operatiboenera: lehenik eta behin, finka dezagun kulturartekotasunaz ari garenean arauen eta balioespenen eremuan mugitzen garela; bigarrenik, koka dezagun kulturartekotasuna kultura-aniztasuna kudeatzeko eredu artean; eta, hirugarrenik, azter dezagun nola definitu kulturarteko ikuspegia, joera horren muina non dagoen zehaztu eta *zer ez den* agerian utzi.

2.1. Arau- eta balioespen-mailako ikuspegia

Nork bere aldetik zein taldean kulturartekotasunaren gainean hausnartzen eta lanean jardun ondoren, ikuspegia heltzen, argitzen eta indar hartzen joan zen. Eta ikuspegi hori abiapuntua da orain. Kategoria hori ez da ez deskribatzailea, ez enpirikoa, ez eta analitikoa ere, baizik eta arauemailea, balioespenezkoa eta axiologikoa. Alderdi hori finkatzeak duen garrantzia hobeki ulertuko da aurrez labur-labur azaltzen badut zertan datzan termino eta kontzeptuei buruzko lan-ildo teoriko-aplikatua. Migrazioak aztertzeko lanean eta antropologo moduan orientazio eta presentzia publikoari buruz eginiko lanetan mamitu dut termino eta kontzeptuei buruzko lan-ildo teoriko-aplikatu hori. Gure gizarteko eta gaur egungo diskurtso publikoetan funtsezkoak diren nozioetako batzuen gaineko gogoeta eta proposamenei buruz ari naiz. Espainian izan ziren migrazioei buruzko lehen ikerketetan, *integrazioa* nozioan sakondu behar izan nuen, eta gerora etorri ziren *kulturartekotasuna*, *bizikidetz*a eta *herritartasuna* nozioak.

Urteen joanean jabetu naiz gizarte-zientzietan erabiltzen ditugun kontzeptu asko ez direla analitikoak, baizik eta balioespenezkoak; nozio horiek ez direla

kokatzen *gauzak zer diren* esaten den eremuan, *zer izan beharko luketen* esaten den eremuan baizik. Alegia, zerikusi handiagoa dute idealekin eta gizarte-proposamenekin, gizartearen egoera deskribatzeko, analizatzeko eta interpretatzeko tresnekin baino. Maila horiek *–zer den* eta *zer izan beharko lukeen*–elkarren artean harremanetan daude eta elkar eragiten dute, baina uste dut bereizi egin daitezkeela eta bereizi egin behar direla, gutxienez metodo moduan.

Nahiz eta aipatutako kontzeptu bakoitza berariaz landu dudan urte hauetan eta nahiz eta hasieratik ez dudan metodo jakin bati jarraituz jardun, gerora honako metodologia hau sistematizatzen joan naiz lanerako: a) termino jakin horren etimologia eta hizkuntza-erabilera ezagutu, ahal bada hainbat hizkuntzatan; b) erakunde, gizarte eta zientzietako eragileek une eta testuinguru batzuetan eta besteetan terminoa nola erabiltzen duten aztertu; c) gizarte-zientzietatik eta, bereziki, antropologiatik, analisi kritikoa egin; d) egokia denean, kontzeptuak finkatzeko eta definitzeko proposamen bat egin, jarraitutako irizpideak jakinaraziz eta zientzia, gizarte eta ideologia aldetik apustua zertan oinarritu den azalduz; e) kategoria zehazteko edo operatibo bihurtzeko urratsak egin, eta f) modu horretan definitutako eta zehaztutako nozioak gizarte-praktikarako, herritarren jardunerako eta politika publikoetarako zer eragin izango duen ondorioztatu. Onartu beharrean naiz lan horretan guztian zenbait egileren lanak izan duen eragina; Raymond Williamsen lanak, esaterako.

Integrazioa terminoari dagokionez, jabetu ginen immigrazio-politikari buruzko Europako eta Espainiako agirietan ugari erabiltzen zela eta, orobat, kontzeptuari kritika gogorrek egiten zitzaizkiola Latinoamerikan eta European bertan; Latinoamerikan, indigenen arazoari loturik, eta, European, ijito-herriari loturik. Bateko erabilera oparo hori eta besteko kontzeptuari egindako kritikak kontrajarriz hasi zen dena. Gizarte-zientzietan integrazio hitzak duen esanahiari lotua goa izango zen formulazioa egite aldera, immigratutako herritarrak eta bertakoak *elkarri egokitzeko* ahalegin gisa ulertzea iradoki nuen (Giménez, 1993 a, 1995, 1996, 2003 a). *Bizikidetza* nozioarekin eginiko lan teoriko-aplikatuak nozio hori koexistentzia kontzeptutik bereiztea ekarri zuen, bai eta *bizikidetza/koexistentzia/aurkakotasuna* hiru aldeko tipologia ere (Giménez, 1997 a, 2005 a eta b). Gaur egun, herritartasunaren kontzeptuan azalduetako metodologiarekin lan egiten dut; hala, herritartasun klasikoa eta berria bereizten ditut, baita herritartasun politikoa eta herritartasun soziala edo zibikoa ere; herritartasun sozial hori tokiko herritartasun gisa eta bizilekuari loturiko herritartasun gisa egituratzen da batzuetan (Giménez, 1998, 2008).

2.2. Kulturartekotasuna gizarte- eta kultura-aniztasuna kudeatzeko eredu soziopolitiko gisa

Kulturartekotasunari buruzko ikuskera zorrotz eta ondo arrazoituak –hemen finkatu dugun zentzuan edo beste edozeinetan– eskatzen du gai hori *gizarte- eta kultura-aniztasuna kudeatzeko eredu*en multzo zabalagoan kokatzea. Horren arrazoia da neurtu ahal izatea kulturartekotasuna zertan den desberdina eta kontrakoa, eta zertan berdina eta espezifiko beste formulekiko. Kulturartekotasuna esparru zabalago horretan kokatzeak badu beste abantailarik ere: kulturartekotasunera iristeko, “aurreko” beste ereduak gainditu behar direla nabarmentzeko aukera ematen du; beste modu batera esanda, kulturarteko ikuspegia berrestek ezer gutxirako balio du artean ere bazterkeriari, bereizkeriari eta bestelako praktikei eusten bazaie.

Eredu horiek bi talde handitan sailkatzea iradoki dugu: bazterketa-ereduak eta inklusio-ereduak. Hona eskema:

| 2 eskema | | | | | |
|---|--|--------------------------|-----------------------------------|--|--|
| <i>GIZARTE- ETA KULTURA-ANIZTASUNARI BEGIRAKO EREDU SOZIOPOLITIKOEN Tipologia</i> | | | | | |
| BAZKERKERIA Arrazakeria, Xenofobia, Antisemitismoa, Apartheida, Holokaustoa, etab. | Bestea baztertea (ez da berdintzat hartzen) | Lege aldetik | Lege baztertzailak | | |
| | | Gizarte aldetik | Bazterkeria-jarduerak | | |
| | Bestea bereiztea | Bizileku aldetik | Etxebizitza-guettoak | Gune publikoak mugatzea | |
| | | | Erakundeen aldetik | Eskoletan ghettoak sortzea Osasun-arloan ghettoak sortzea | |
| | | Bestea suntsitzea | Kultura aldetik | Etnozidiodia Kultura-fundamentalismoa | |
| | Fisikoa | | Genozidiodia Garbiketa etnikoa | | |
| | BARNERATZEA | Homogeneizazioa | Asimilazioa | Ingelestzea Arabiartzea Ladinizatzea | |
| | | | | Kultura-fusioa | Melting Pot |
| | | | | Kultura-pluralismoa | Kultura-aniztasuna Kulturartekotasuna |

Sailkapen hori eta eredu horiek hainbat idatzitan aintzat hartu ditut. 2000. urtean argitaratutako artikulua bat erabiliko dut hemen, antolaketa hori mamitzeko argudioen sintesi organikoa eskaintze aldera. Hauze zen artikulua: “Kulturartekotasuna eredu egokia da gizarte- eta kultura-aniztasuna nazio

mailan eta nazioarte mailan aurrez eta modu praktikoan tratatzeko eta kudeatzeko”. Alde horretatik, “hipotesi oinarritzko batzuk” proposatu nituen, “kulturrarteko politika ezartze aldera premisa teoriko-metodologikotzat erabiltzeko”. Orduko hartan azaldutako hamabost proposamenen hasiera emango dut labur-labur, eta letra etzanean adieraziko dut zer gairi dagokion bakoitza:

Abiapuntua: aniztasunak iraun eta gora egin du

“Lehen proposamena. “Etorkizunerako” edozein formulazio ideologiko-politikorako, eta, are gehiago, gizarte- eta kultura-aniztasuneko egoera eta prozesuei tokian bertan, nazioan eta nazioartean nola aurre egin agertzen duen proposamen guztietarako, beharrezkoa da oinarri hau abiapuntutzat hartzea: herrialde indigenak, talde etnikoak eta gutxiengo nazionalak mantendu egin behar dira; areago, emendatu egin behar dira.

Premisa osagarria: gizarte- eta kultura-aldagaiak berebiziko garrantzia hartu dute

2. Mendea aldatu den honetan, erronka berriak sortu dira, bai teorian eta bai praxian, kultura-aniztasuneko egoerei loturik. Erronka nagusia hau da: klasearekin eta generoarekin batera, gizarte- eta kultura-aldagaiak zentzurik zabalenean (etnizitatea, “gizarte-arraza”, hizkuntzak eta eleaniztasun-egoerak, sinesmenak eta erlijio-adierazpideak, “atzeritartasuna”, etab.) gero eta gehiago funtsezko elementu bihurtzen ari dira bizitza ekonomiko eta soziala antolatzeko, gatazkak erregulatzeko eta adostasun politikoak eratzeko.

Aniztasunaren aurrean zer egin: arazoaren planteamendua

3. Aspaldiko arazoa da, pentsamolde aurrerakoietatik hasita, diferentzia, bereizgarritasuna eta, azken batean, kultura-aniztasuna nola jorratu/kudeatu behar den. Arazo hori modu honetara adieraz daiteke gaur egungo egoeran, eta ahalik eta adostasun handiena bilduz: lege eta araudien aurreko herritar guztien egiazko berdintasunean, bestearen “onarpenean”, etnia eta kultura aldetik egon daitezkeen diferentzien eta talde nahiz herrien autonomiarako eskubidearen errespetuan eta balioeste positiboan oinarrituriko gizarteak lortzeko, zein eredu soziopolitiko eta ikuskera ideologiko bultzatu behar da, eta zein eredu bultzatzeko aukera dago?

Ezinbesteko baldintza: kultura-alderdiaren ikuskera egokia

4. Ikuspegi aurrerakoietatik kultura-aniztasunaren “kudeaketa” soziopolitikoari heltzeko, ezinbestekoa da kulturari eta kulturei buruzko ikuskera ez kulturalista izatea; hau da, kulturak izate zehaztu, homogeneo eta estatikotzat hartuko

ez dituena, baizik eta haien barneko heterogeneotasuna eta haien izaera moldagarria eta aldakorra azpimarratuko dituena.

Diferentziaren eta desorekaren arteko lotura

5. Etnia eta kultura aldetik diferenteak diren gizabanakoen arteko aldeak gizarte- eta politika-testuinguru mailakatu, zatikatu eta gatazkatsuetan identifikatzen, formulatzen, hautematen eta jorratzen dituzte erakundeetako eta gizarteko eragileek, eta, horrenbestez, gatazka sozial eta politikoetan desorekatik abiatuta eta desoreka sortzeko interpretatzen eta erabiltzen dira diferentzia horiek.

Bazterkeria-ereduak

6. Historikoki, eta botere zentralizatuaren eremu publiko eta politikoetan, batasuna eta aniztasuna tratatzeko eredu nagusiak bestea baztertzekoak izan dira; hots, bestearen edo desberdinaren bereizkerian, bazterkerian eta marjinazioan oinarritutakoak, eta, inoiz, oso muturrera ere joan izan dira, desberdinen sunsiketa antolatzeraino. Bazterkeria-eredu horiek ez dute indarririk galdu; areago, oraindik ere garrantzi handia dute munduan.

Barneratzeko ereduak

7. Bazterkeria-ereduen aldean, barneratzeko ereduak “gizarte- eta kultura-aniztasunaren eta batasunaren arazoari” erantzun “integratzailea” eta “positiboa” ematen saiatzen dira –botere nagusiaren eta komunitate nagusien eta/edo agintean daudenen ikuspegitik, bederen–, eta, horretarako, pertsona guztiak, modu batera edo bestera, gizarte nazionalera biltzen ahalegintzen dira.

Asimilazionismoa

8. Asimilazionismoaren ereduak, barneratzeko ereduaren artean historian sortu zen aurrenekoa, gehiengoaren ezarpena da berez: eredu nagusiak gutxiengoei edo mendean hartutako sektoreei gainetik egindako ezarpena. Baztertzekoa da eredu hori; izan ere, kultura-asimilazioak ez du halabeharrez gizarte-integrazioa ekartzen, eta, aldiz, pertsona menderatuek edo gutxiengoei identitatea edo kultura galtzea eragiten du.

Kultura-fusioa

9. Eredu horrek baditu alderdi onak asimilazionismoaren aldean, baina kultura-fusioaren aldaerak ere (“melting pot”, “mestizajea”, “hibridismoa”, etab.) ez dira

erabilgarriak pertsonen arteko diferentziei heltzeko; izan ere, aurreko identitatea eta kultura utzi behar izatera bultzatzen dute, eta, horrez gain, fusio partzial ugari sortzen dute beti. Fusio partzial horiek gorde eta berritu egiten dute aniztasuna, baina bizitza sozialaren “konpartimentutan zatituta”; horixe erakusten dute historian zehar hainbat testuingurutan izan diren esperientzietan.

Ustez gainditutako ereduak indarrean dira oraindik

10. Egitura eta egokiera aldetik, agintariek, indar politikoez eta politika egiten duten orok badute eta izango dute “tentazioa” eskuartearen dugun arazoari aurreko ereduarekin heltzen jarraitzeko; zaharkituriko eta porrot egindako ereduarekin, hain zuzen.

Kultura-pluralismoaren paradigma

11. Orain arteko eredu guztiak ez dira baztertzekoak; aitzitik, arazoaren ikuspegi aurrerakoi baterako, kultura-pluralismoaren paradigmak (1960ko hamarkadan sortua) baliagarri izaten jarraitzen du. Izan ere, bi printzipio funtsezkotan oinarritzen da: eskubide eta betebeharren berdintasunean eta diferentziarako eskubidean.

Kultura-aniztasuna

12. Kultura-pluralismoaren lehen aldaera izan zen aldetik, kultura-aniztasunak “onarpenaren” ideia ekarri zuen batez ere, eta, eredu horren eskutik, gizartearen etnia- eta kultura-aniztasunaren araberrako politika publiko egokiagoak ezarri ziren hainbat herrialdeetan, hezkuntzan, osasun-arloan eta beste arlo batzuetan. Alabaina, bateratzea, gizarte-kohesioa eta herritarren bizikidetzaren egituratzeko zereginetan, gero eta ageriago geratzen ari dira eredu horren gabeziak eta mugak.

Kulturartekotasuna

13. Proposamen berri hau kultura-pluralismoaren aldaera berritzaile har daiteke. Kultura-aniztasunaren mugak, kontzeptu horrek jasotako kritikak eta ahuluneak direla-eta sortu den hutsunetik etorri da aldaera horren bultzada. Berez, esplizitua baino gehiago inplizitua begitantzen da aldaera hori. Gaur egun, mamitzen ari da oraindik, esku-hartzerako eta gogoetarako eremu askotarikoetan, hala nola hezkuntzan, komunikazioan, bitartekaritzan eta filosofian.

14. Gizarte- eta kultura-mailako eragin-truke positiboa eta horrek dakarren guztia (hurbiltzea, komunikazioa, bat egiten ikastea, sintesi berriak, gatazkak kon-

pontzea, etab.) ulertzeko, zaintzeko, bultzatzeko eta arautzeko eginahala da kulturartekotasunaren bereizgarria eta kulturartekotasunaren ekarpen zehatza aurreko ereduarekin alderatuta; alde horretatik, hobeto egokitzen da kulturaren eta kulturen egitura konplexura eta dinamikora.

15. Beste proposamen eta ereduarekin hala gertatu baita, kulturartekotasunak ere badu arriskua kulturalismo berri gisa formulatzeko, ulertzeko eta erabilia izateko, bereziki ez badira aintzat hartzen ekonomiaren, gizartearen eta politikaren dimentsioak eta desoreka-, asimetria- eta menderatze-testuinguruak.

16. Kulturartekotasunaren proposamena pentsamolde aurrerakoientzako baliozkoa izan dadin, nahitaez oinarritu behar du giza eta gizarte-garapenaren kategoriaren eta oinarrien hedapenean eta egokitzean, herritartasun komun eta berezitan eta botere partekatuan, eta era horretara gaundituko du kulturalismoa” (Giménez, 2000 b, 134-145).

2.3. Kulturartekotasunaren ikuspegia zehazten

a) Ikerketa teorikoa: 1990eko hamarkadaren erdialdean zegoen bibliografia

Integrazio kontzeptuaren gainean lan kritikoa eta proposamenezkoa egiteko modua –aurrez azaldutakoa– oso baliagarri egin zitzaidan immigrazioari eta gutxiengo etnikoei buruzko diskurtso eta politiketan erabiltzen den beste hitz handi hori –*kulturartekotasuna*, alegia– jorrazteko. Aurrez aipatutako lehen ikerketa moduko haien ondoren, bibliografian arakatzen hasi eta hortik sortu zen kulturartekotasunari buruzko ikuspegiaren lehen gorpuzte sistematikoa. Gaiari buruzko literaturan egindako azterketa sakon haren emaitza *Guía de conceptos sobre migraciones, racismo e interculturalidad* (Migrazioari, arrazakeriari eta kulturartekotasunari buruzko kontzeptuen gida) eskuliburuan jasota dago; “kultura-pluralismoa”, “kultura-aniztasuna” eta “kulturartekotasuna” kontzeptuei dagozkien sarreretan, zehazki. 1997an argitaratu genuen Graciela Malgesini lankideak eta biok. Gaikako hiztegi bat da, eta guztira 57tik gora hitz edo ahots aztertu genituen. Aipatutako hiru kontzeptu horien gainean zegoen bibliografia zabal eta sakon berrikusi genuen, eta, lan hartatik, egile funtsezko batzuk nabarmenduko ditut.

Bi lan-mota azpimarratuko ditut. Alde batetik, *gizarte plurala* lehenbizi aztertu zuen bibliografia antropologikoa eta etnografikoa, eta bereziki honako hauek: Furnivallek Holandako kolonietako ekonomia pluralari buruz egindako lanak (1994), Smithek Erresuma Batuak Asian zituen kolonietako gizarte pluralari buruz egindakoak (1965), eta Barthekek Afganistango pathanei buruz eta haiek

beste talde etniko batzuekin zuten harremanari buruz egindakoak (1968). Beste alde batetik, herrialde pluraletan eta immigrazio handia izan dutenetan egin diren politikak aintzat hartu eta politika horien baitan kultura-pluralismoa jorratu izan duten testuak ere aztertu genituen; nabarmentzekoak dira Gordonek Ameriketako Estatu Batuetako asimilazioari buruz idatzitako lan klasikoa (1964) eta integrazio-ereduei buruz idatzitako antzeko beste batzuk.

Kultura-aniztasunari dagokionez, nabarmentzekoa da Rexen obra, bereziki gizarte kulturantzunari buruz egin zuen kontzeptualizazioa (1986), bai eta Druryk eta Rexek Europako mobilizazio etnikoari buruz idatzitako saiakera ere (1994). Lan hartan, kultura-aniztasunari eginiko kritikak aztertu zituzten egileek. Kultura-aniztasuna ulertzeko beste erreferentzia garrantzitsu bat da Taylorrek diferentziaren politikei buruz idatzirikoa (1993); lan horretan, *onarpenaren* ideia azpimarratzen du bereziki Taylorrek. Globalizazio-prozesuan kultura-aniztasunaren eta hizkera kulturantzunaren funtzionaltasuna aintzat hartzen zuten ikuspegi kritiko batzuk ere kontsultatu nituen. Kultura-aniztasuna zehazten zuten ezaugarriei buruz, herrialde bakoitzaren berezitasunei buruz eta kultura-aniztasunaren eta herritarren arteko harremanari buruz sakontzeko, berriz, funtsezkoak izan ziren Kymlickaren ekarriak (1996) eta Lamo de Espinosak koordinatutako lanen bilduma (1995).

Azkenik, kulturartekotasunaren ikuspegia zehazteko –kontzeptu lausoa eta artean indar hartzen ari zena–, ordura arte haren ezaugarriak finkatzen saiatu ziren testu apurrak aztertu nituen; Perottik immigrazioari buruzko lexikoan bildutako ideiak (1989), eta Labatek eta Vermesek kontaktu eta eragin-truke kulturalari buruz egindako lana (1994), esaterako. Orobat, kontsultatu beharrekoak ziren beste zenbait alorretan argitaratutako lanak ere: kulturarteko bitartekaritzaren alorrean, antropologia aplikatuaren eremuan erabiltzen den *cultural broker* kontzeptuari buruz idatzi zuen Willingenek (1986), eta elebitasunaren alde, berriz, O Podrok; kulturarteko filosofiaren alorrean, aipagai dira Wimmerren lanak (1996), eta, azkenik, kulturarteko komunikazioaren gaineko lana egin zuen Youngek (1996).

Bibliografia hori guztia aztertuta, hiru ondorio atera nituen: lehena, kultura-pluralismoari buruzko ideia, proposamen eta ñabardurak bi ideia edo printzipio oinarritzotan sintetizatzea, bi-biak elkarrekiko eragin handikoak eta gizartean aldi berean aplikatu beharrekoak. Hortik datoz zailtasun handiak. Hauek dira bi printzipio nagusiak: a) berdintasuna tratuan eta ez inor baztertzea, eta b) diferentzia errespetatzea. Bigarren ondorioa, kultura-pluralismoaren ondoz ondoko bi aldaeratzat hartzea kultura-aniztasun sendotua eta eztabaidagarria eta gorantz zetorren kulturartekotasun idealizatua, biak ala biak indarrean. Hirugarrena, pluralismoaren zuhaitza eta haren aldaerak erronka nagusitzat

hartzea, ustezko proposamen inklusibo batzuk –asimilazionismoa, esaterako– eta beste proposamen nabarmen baztertzailak alde batera utzita. Literatura askotariko horri zentzua ematerakoan, bi lanetan ari nintzen aldi berean: bate-tik, bibliografia kontsultatzen eta analisia egiten, eta, bestetik, Espainian immi-grazioari buruzko eta, batez ere, Guatemalan indigenen arazoei buruzko aholkulari-lanetan. Bada, bi lan horien aldiberekotasuna oso lagungarri egin zitzaidan literatura horri guztiari zentzua emateko.

b) Proiektu baten praktika: ikuspegia zehaztea Guatemalan

Guatemalan, Q'anil Proiekturako lanean ari ginela, egitasmoan jardun zuen talde kulturantzunean eztabaida mamitsuak izan ondoren, definizio hau zehaztu genuen: kulturartekotasun gisa hartzen da (artean ez genuen argi kulturartekotasunaz edo kulturarteko ikuspegiak hitz egitea ote zen egokiena) honako hau:

“- Estatu demokratiko eta parte-hartzaile batean eta nazio kulturantzun, elea-niztun eta etnia anitzeko batean, kultura aldetik desberdinak diren eragileek elkarren artean izan beharko lituzketen harremanei buruzko planteamendu pluralista;

- -Estatutik eta gizarte zibiletik eragin-truke positiborako gune eta prozesuak sistematikoki eta pixkanaka bultzatzea, gune eta prozesu horien bidez konfiantzazko harremanak, elkar onartzea, komunikazio eraginkorra, elkarrizketa eta eztabaida, ikasketa eta trukea, gatazkak modu baketsuan arautzea, lankidetzeta eta bizikidetzeta zabaltzeko eta orokortzeko;

- -hiru printzipio oinarri direla:

1) *herritartasunaren printzipioa*: printzipio horrek berekin dakar erabateko onarpena eta uneoro eskubide, ardura eta aukeren berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzeko ahalegina, baita arrazakeriaren eta bazterkeriaren kontrako borroka iraunkorra ere;

2) *diferentziarako eskubidearen printzipioa*: Guatemalako herri, talde etniko eta adierazpen soziokultural guztien identitatea eta eskubideak errespetatzea eskatzen du printzipio horrek; eta

3) *aniztasunaren baitan, batasunaren printzipioa*, batasun nazionalean gorpuztua, ez gaitetik ezarria, baizik eta guztien artean eraikia eta borondatez onartua” (Giménez, 1997 b, 26-27 orrialdeak)

Q'anil Proiektutik sortu zen gidan, definizio hori osatzen duten hiru zati artikulatuak zehazten dira: testuingurua, muina eta oinarritzea. Hona:

“*Testuinguruaren atalean*, kokatu egiten da kulturartekotasuna: adierazpide zehatzat hartzen da kultura-pluralismoaren ereduaren baitan, eta, zehatzago, beharrezko eta ezinbesteko ezaugarritzat sistema demokratikoan eta nazio kulturantzunean. Definizioaren bigarren atalean, *muinean*, kulturartekotasuna benetan bereizten duena, haren funtsa azpimarratzen da; kultura-aniztasunaren ohiko esanahietatik bereizten duena, alegia. Aniztasunaren baitan batasuna lortzeko ideiarekin eta helburuarekin koherentzia gordetzeko ahaleginean, kulturartekotasunaren ikuspegitik eragin-truke positiboa bultzatzen da esplizituki, eta kulturen arteko harremanen arloa gogotik “lantzen” da, hainbat esparrutan eta mailatan. Gure definizioaren muina mamitzen den atal horretan, orobat, harreman-mota horren ezaugarri nagusiak zehazten dira. Definizioaren hirugarren atalean, *oinarritzean*, kulturarteko jarduna uneoro gidatu behar duten printzipioak zehazten dira. Hain zuzen, goiburu hauetan gorpuztu dira printzipio horiek: “berdinak baina diferenteak direnen artean” eta “batasuna aniztasunean” (Giménez, 1997 a, 27-28).

Kulturarteko ikuspegia utopia, metodoa eta prozesua da aldi berean: ilusioa sortu eta praxia akuilatzen duen *utopia*, proiektuak eta aliantzak eratzeko *metodoa*, eta gatazkaz betetako *prozesua*. Lan haren ondotik, behin eta berriro nabarmendu dut zer ez den kulturartekotasuna. Ez da borondate onaren alde egindako dei generikoa, proposamen soziopolitiko eta etikoa baizik; ez da folklorismoa ez eta kulturalismoa ere, alderdi kulturalaren ikuskera oso eta dinamiko batetik abiatzen delako eta ekonomia politikoan txertatzen duelako kulturaren alderdi hori; ez da fusioaren eta mestizaje fisiko edo kulturalaren parekoa, baina hibridazio eta sintesi soziokultural berrien beharrean da.

Definizio laburragoa eta sintetikoagoa

Aurreko definizioa luzea da, talde baten adostasunetik sortua eta Guatemalan mamitua. Oraindik orain, *Zer da immigrazioa* liburuko terminoen glosategian, definizio laburrago hau eman dut *kulturartekotasunari* buruz: “Kultura-pluralismoaren baitan sortutako beste adierazpide bat da. Desberdina dena ez ezik, komuna dena ere berresten du eta, alde horretatik, kulturalki elkarrengandik bereizita dauden gizabanako eta kolektiboen arteko harremanetan berdintasuna, askatasuna eta eragin-truke positiboa sortzen duen praxia bultzatzen du” (2003 a, 174). Esaldi labur horretan nabarmentzekoa da kulturartekotasunaren ikuspegi funtsezkoa dela alde komuna eta bateratzailea berrestea, eta kulturartekotasunaren jardunak behar duela eta, orobat, bultzatzen duela berdintasunaren, kultura-askatasunaren eta bizikidetzaren eremuetan aurrerapausoak ematea.

Ondorioa

Paradigma berri bat, kulturartekotasuna, goranzko bidean da, eta, beraz, aldea, borroka, bihurtze eta formulazio berrien eskizari egon behar du. Beste gizarte-ideal batzuekin hala baita –askatasuna, justizia, integrazioa, herritartasuna, eta abar–, kulturartekotasunarekin ere premiazkoa da elkarren artean loturiko prozesuak elikatzea. Era honetakoak:

- a) eztabaidatik, lan kritikotik eta praktikatik abiatutako eta oinarritutako definizioak;
- b) kontzeptua zatikatzea eta operatibo bihurtzea, hainbat arlotan praktikara eramateko;
- c) hainbat arlotan sormenez eta berezitatea aplikatzea, eta hortik nozioa aberastuko duten irakaspenak ateratzea;
- d) erabilera eta aplikazio horien emaitzen azterketa parte-hartzailea eta kritikoa;
- e) ikuspegiaren ausazko erabilera kulturalistei aurre hartzea eta aurre egitea, eta politikan eta gizartean inor menderatzeko estrategietarako bereganatzea ez dezaten zaintzea;
- f) proposamenak berak izan ditzakeen ahulunez uneoro jabetzea, eta
- g) kulturartekotasunaren erreferenteak bilatzeko lanari modu dialektikoan jarraitzea, berdintasunaren, askatasunaren eta justiziaren alde taldean, komunitatean eta nork bere aldetik jarduteko.

Bibliografia-erreferentziak

A) Egileak kulturartekotasunari buruz idatzitako testuak

Oharra: 2005eko eta 2008ko testuak beste kapituluan agertzen dira

2003 a) *¿Qué es la inmigración?* (Bereziki 9. kapitulua: “Del racismo a la interculturalidad”, 147-166 orrialdeak), RBA Libros, Bartzelona (2004an eta 2006an berriro inprimatua).

2003 b) “Pluralismo, multiculturalismo e interculturalidad. Propuesta de clarificación y apuntes educativos”, *in* Educación y Futuro: Revista de Investigación Aplicada y Experiencias Educativas, 8 (2003ko apirila), Editorial CES, Don Bosco eta EDEBÉ, 9-26.

2002 a) “El planteamiento intercultural y su relación con la ciudadanía y las políticas públicas”, *in* Seminario de Investigación para la Paz: “*La inmigración, una realidad en España*”, Pignatelli Zentroa / Aragoiko Gobernuoko Kultura eta Turismo Saila, 535-560.

2002 b) “Las críticas al multiculturalismo” *in* Temas para El Debate aldizkaria (2002ko maiatza), 1-5.

2002 c) “Inmigración/Interculturalidad” *in* Monográfico de la Revista La Escuela de Voluntariado, 6 (2002ko uztaila-iraila), Madrilgo Udaleko Gizarte Boluntarioen Udal Eskolako buletina, 4-5.

2002 d) “La construcción de una sociedad intercultural”, *in* Boluntarioen Kanarietako V. Jardunaldiak, Kanarietako Gobernu, 141-170.

2001 “Identidades y culturas en la España del siglo XX: reflexiones desde la interculturalidad” *in* El segle XX a debat, Jornades l'Hospitalet 75 anys de ciutat, Centre d'Estudis de l'Hospitalet, Bartzelona, 217-224.

- 2000 a) *Guía sobre Interculturalidad. Segunda parte. El enfoque intercultural en las políticas públicas para el desarrollo humano sostenible*, in Cuadernos Q'anil Bilduma, 2. "Kulturartekotasuna, politika publikoak eta giza garapen iraunkorra" proiektua, NBGP - Guatemala /97/015. Guatemala, 219 orrialde.
- 2000 b) (Marta Casasekin batera, koord.) *Guatemala hoy: reflexiones y perspectivas interdisciplinares*, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Argitalpen Zerbitzua.
- 2000 c) "Modelos ante de la diversidad cultural: del racismo a la interculturalidad" in ALCINA, J. (koord.): *Hacia una nueva ideología para el siglo XXI*, Editorial Akal, Madril, 133-145.
- 1998 "Migración y nueva ciudadanía", in *Temas para el Debate* aldizkaria, 43, 27-31.
- 1997 a) (Graciela Malgesinirekin batera). *Guía de conceptos sobre migraciones racismo e interculturalidad*, La Cueva del Oso (Edizio berria 2000. urtean: Ediciones La Catarata, Madril).
- 1997 b) *Guía sobre Interculturalidad. Primera parte. Fundamentos conceptuales*, in Cuadernos Q'anil Bilduma, 1. "Kulturartekotasuna, politika publikoak eta giza garapen iraunkorra" proiektua, NBGP - Guatemala /97/015. Guatemala.
- 1996 "La integración de los inmigrantes y la interculturalidad. Bases teóricas de una propuesta práctica", in *Arbor* aldizkaria, 607 (1996ko uztaila), Madril, 119-147.
- 1995 "Inmigración e interculturalidad en Madrid. Apuntes para un balance social" in *Economía y Sociedad* aldizkaria, 12 (1995eko ekaina), Madril, 171-202.
- 1993 a) (koordinatzailea) *Inmigrantes extranjeros en Madrid*, bi liburuki, Madrilgo Erkidegoko inprenta, Madril.
- 1993 b) "La educación intercultural: conceptos, fundamentos y objetivos", in *Multiculturalismo y educación de personas adultas*, Zaragozako Diputazioa, Zaragoza, 25-28.

B) Testuan aipatutako beste erreferentzia batzuk

KYMLICKA, W.: *Ciudadanía multicultural. Una teoría liberal de los derechos de las minorías*, Paidós, 1996.

LAMO DE ESPINOSA, E. (arg.): *Culturas, estados, ciudadanos. Una aproximación al multiculturalismo en Europa*, Alianza Editorial, 1995.

REX, J.; DRURY, B.: *Ethnic mobilization in a Multi-cultural Europe*, Averbury, Aldershot, 1994.

REX, L.: *The concept of a multicultural society*, Occasional Papers, Centre for Research in Ethnic Relations, University of Warwick, Coventry, 1986.

SARTORI, G.: *La sociedad multiétnica. Pluralismo, multiculturalismo y extranjeros*, Taurus, 2001.

TAYLOR, Ch.: *El multiculturalismo y "la política del reconocimiento"*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko, 1993.

YOUNG, R.: *Intercultural communication. Pragmatics, genealogy, deconstruction*, Multilingual Matters Ltd, 1996.

KULTURARTEKOTASUNAREN IKUSPEGIAREN APLIKAZIOAK

Politika publikoak, eskola, bitartekaritza, auzoak eta gizabidea

Carlos Giménez Romero

Antropologia sozial eta aplikatuko katedraduna eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Migrazio, Etnizitate eta Gizarte Garapeneko Institutuaren (IMEDES) zuzendaria

Laburpena: Kulturartekotasuna utopiatzat, prozesutzat eta metodotzat hartzen dugu aldi berean: praxia akuilatzen duen utopiatzat; prozesu sozial dialektiko eta gatazkatsutzat; jarduteko gida metodologikotzat. Kapitulu honetan, hirugarren alderdi hori jorratuko dugu; horretarako, aurreko kapituluan azaldutako kulturartekotasunaren ikuspegia aplikatuz egileak parte hartu izan duen esperientzia profesional batzuk azalduko ditugu modu sintetikoan.

Sarrera

Kulturartekotasuna utopiatzat, prozesutat eta metodotzat hartzen dugu aldi berean: praxia akuilatzen duen utopiatzat; prozesu sozial dialektiko eta gatazkatsutat; jarduteko gida metodologikotzat. Kapitulu honetan, hirugarren alderdi hori jorratuko dugu; horretarako, aurreko kapituluan azaldutako kulturartekotasunaren ikuspegia aplikatuz egileak parte hartu izan duen esperientzia profesional batzuk azalduko ditugu modu sintetikoan.

Idazten duen honek eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Migrazioa eta Kultura-aniztasuna Programako taldeak kulturartekotasunaren nozio soziopolitiko eta etikoa, etengabe egokitua, erabili izan dugu aurkezpen publikoetan irakaskuntzarako, eta bitartekaritzaren, baterako garapenaren eta kulturarteko dinamizazioaren alorretan jarduera profesionalerako. Azkena aipatutako horiek dira, hain zuzen, gure unibertsitate-programaren hiru ildoak.

Kulturarteko ikuspegia erabili izan dugun prozesu horiek laburtzerakoan, ikuspegiaren edukiak hurbilagotik erakusten saiatuko naiz, baita ikuspegiaren kontzeptualizazioa era berean praktikan gauzatutako zehaztapen horiez elikatzen dela agertzen ere. Kulturartekotasunaren ikuspegia aplikatzeko, honako arlo eta esparru hauek hautatu ditut: a) politika publikoak formulatzea eta gauzatzea, b) eskolan, gizarte- eta kultura-aniztasunaren erronkari nola aurre egin azaltzea, c) testuinguru kulturantzunetan bitartekaritza arrazoitzea eta bultzatzea, d) etnia-aniztasun handia eta gizarte-arazo ugari dituzten auzuneetan bizikidetzeta eta kohesio soziala bultzatzea eta, azkenik e) herritarrak hezteak.


Antropologo aplikatu gisa, hainbat lan egin ditut, gizartearen alor ugarian esku hartu dut eta jardun dut aholkulari-lanetan, era guztietako erakundeekin lan egin dut teoriaren eta praktikaren eremuan, eta esperientzia eta lan horietatik guztietatik dator ondoren azalduko dudana. Horrenbestez, irakurleak aukera izango du kontzeptu-proposamena balioesteko, ikuspegiak zer ahalmen izan dezakeen neurtzeko, beste erabilera batzuekin alderatzeko eta baita lan honetan aintzat hartu ez diren beste esparru batzuetan ikuspegi hori erabiltzeko ere.

APLIKAZIOA POLITIKA PUBLIKOETAN

Hasteko eta behin, kontu orokor edo “zeharkako” bat: Egokia al da kulturartekotasunaren ikuspegia politika publikoak formulatzeko, betearazteko eta ebaluatzeko? Guatemalan izan genuen aukera hori egiaztatzeko eta aztertzeko. Han, Gobernuak eta gerrillek sinatutako bake-hitzarmenetan mamitzen da herrialdea eraikitzeko markoa, eta, marko horretan, gizartearen etnia-aniztasuna, eleaniztasuna eta erlijio-aniztasuna onarturik daude. Hain zuzen, Guatemalako proiektuaren bidez aukera izan genuen ikusteko kulturartekotasunaren ikuspegitik gizarte aniztun horretarako politika egokiak landu ote zitezkeen. *Guía de Interculturalidad* (Kulturartekotasunaren gida) lanaren lehen liburukian azalduko oinarri kontzeptualak landu genituen lehenbizi, eta, ondoren, *policy* edo politikaren eremura igaro ginen, eta oinarri haiek hedatzen jardun genuen 1998-2000 artean, orduko hartan ere Q'anil Proiektuko talde pluralaren baitan. Taldea plurala baitzen bai profesionalen eta bai etnien aldetik. Bilera, eztabaida eta zirriborro oparo haien emaitza Kulturartekotasunaren Gidaren bigarren liburukia izan zen: *El enfoque intercultural en las políticas públicas para el desarrollo humano sostenible* (Kulturarteko ikuspegia giza garapen iraunkorrerako politika publikoetan) izenburua zuen argitaratutako lan hark (2000 a).


Dokumentu horrek giza garapenaren, demokratizazioaren eta erakundeak berregokitu beharraren erronkak jorratzen ditu, eta ezinbestekotzat jotzen du kulturartekotasuna politika publikoetan jasotzea. Horren harira, kulturartekotasunaren ikuspegitik landutako politika orok izan beharko lituzkeen lau baldintza ezinbestekoak zehazten ditu: *inklusioa*, *kulturarteko helburua*, *zuzentasuna* eta *partehartze aktiboa*. Hiru ardatz ematen ditu marko kontzeptual moduan: a) giza garapenaren, kulturaren eta giza eskubideen arteko loturek politika publiko guztietaran duten eragina, b) estatu modernoaren bilakaera eta estatu horrek garapenean duen egitekoa, bi gai funtsezko nabarmentzen direla: ongizate-estatuaren eta etnia-bazterkeriaren arteko harremana, eta beste era bateko erakundeak eta gobernagarritasuna izateko beharra eta aukera, eta c) politika publikoaren ikuskerak kudeaketa publikoa sozializatzeko joera izatea, gizarte- eta kultura-aniztasunaren kudeaketa publikorako ereduak harturik (ikuski aurreko kapitulua).

Erronkaren eta marko kontzeptualaren ondoren, hirugarren urrats bat egin da proposatutako eredu eta metodologia abiatu aurretik: kulturartekotasunaren ikuspegi operatibo bihurtzea haren printzipioetatik, ardatzetatik eta dimentsioetatik abiatuta. Berdintasunari eta etniak eta arrazak ez baztertzeari dagokiona –*herritartasun komunaren dimentsioa*, alegia– “bi ardatzen inguruan hezur-mamitzen da: a) eskubide eta betebeharren berdintasunari loturiko *zuzenbide-ardatza* esaten zaion horretan, eta b) aukera-berdintasunen *gizarte-ardatza* izenda genezakeen horretan” (2000, 89). Etnia eta kultura aldetiko diferentziaren errespetuaren eta eskubidearen printzipioari dagokiona –hots, *herritartasun berezituaren dimentsioa*– “hiru ardatzen inguruan antolatzen da: a) Bestearen kultura errespetatzeari dagokion *ardatz etikoan*, b) diferentziarako edo kultura-askatasunerako eskubidearen *zuzenbide-ardatzean* –adierazteko, elkartzeko, manifestatzeko eta bestelako askatasun batzuekin oso loturik dago ardatz hori–, eta c) erakundeen onarpenari loturiko *ardatz politikoa*” (idem). Eragin-truke positiboari buruz ari garela –*gizarte- eta kultura-aniztasunean batasuna eraikitze*ko dimentsioaz, alegia– eta abiapuntuko definizioan zehaztu ditugun kulturarteko harremanen egiturazko ezaugarriak kontuan harturik, “hiru ardatz bereiz daitezke aldi berean: a) *ezagutza eta kontzepzioen ardatza*: ezagutza benetakoa eta zuzena, aurreiritziak eta estereotipoak gainditzea, etab.; b) jarrera eta balioen ardatza: errespetua, konfiantza, tolerantzia, elkar onartzea, eta c) jokabide eta jardunbideen ardatza: komunikazio eraginkorra, elkarriketa eta eztabaida, ikasketa eta trukea, gatazka modu baketsuan arautzea, lankidetzeta eta bizikidetzeta” (2000, 90).



Iturria: Giménez, 2000, 90

Irakurleak jo beza testu osora; hemen, hartutako ikuspegia zehazteko prozesuaren gaineko beste ohar bat baino ez dut egingo. Guatemalako espezifikotasuna kontuan izanda eta politika publikoetan generoaren ikuspegia hartzeari buruzko beste lan batzuei jarraituz –generoarena, horra zeharkako beste ikuspegi bat berdintasunari, desorekari eta botereari buruz–, hiru fasetan eta hamalau urratsetan banatutako metodologia azaltzen da dokumentuan. Hiru faseak hauek dira: aurreko analisia, formulazioa bera eta azken hausnarketa¹.



Iturria: Giménez, 2000, 142

¹Aipatu dugun Gidan, eredu eta metodologia hori aplikatzen da Guatemalako politika publikoaren alor batean: baso-politikan, hain zuzen.

2

APLIKAZIOA ESKOLA ASKOTARIKOAN

Migrazioari buruz ari garela, jatorriz atzerrikoak diren ikasleak eskolaratzea da erronkarik nabarmenenetako bat. Horrek berekin dakar, besteak beste, maila akademikora atxikitzea, ikasleak hartu dituen eskolako hizkuntza(k) ikastea, ikasle berrien hizkuntza(k) errespetatzea eta balioestea, eskola eta curriculuma egokitzea, irakasleak birziklatzea eta, azken batean, gizarte- eta kultura-aniztasun sortu berria kudeatzeko modua. Horri buruzko bibliografia zabala eta dokumentu tekniko ugari dago Europan eta beste testuinguru batzuetan. Eskola eta aniztasunaren gaia ez dago soilik migrazioari lotuta; hori dira Latinoamerikako herrialde batzuetan hezkuntza elebiduneko programei buruzko ekarpen aberatsak, eta hori da zenbait herrialdetan –Kanadan, kasurako– herrialdeko aniztasun osoa bildu duten eskolen isla.

Gizarte-arazoen esparru horretan, kulturarteko ikuspegia erabiltzen da jada nagusiki; hain zuzen, hezkuntza izan zen kultura-aniztasunetik kulturartekotasunerako urratsa egin zen lehenbiziko gizarte-esparruetako bat. Migrazioa eta Kultura-aniztasuna Programaren baitan bi hamarkada daramatzagu eremu horretan lanean, eta ikerketa asko egin ditugu eskola, immigrazioa eta aniztasuna gaitzat hartuta, baita hainbat topaketa ere, eta irakasleekin berekin hitz egiteko aukera izan dugu topaketa horietan. Behin eta berriz eskatu didate kulturartekotasunaren ikuspegia hezkuntza-praktikan *nola aplikatu* argitzeko eta zehazteko, eta gai horri helduko diot. Gizarte-zientzia aplikatua –eta, nire kasuan, antropologia aplikatua eta joera publikokoa– gizartearen errealtatean sartzeko zientziazat hartu izan ditut beti, eta, horrenbestez, eragileek alde teorikoaren ondorioak noiz aplikatuko zain geratu gabe –aitzitik, eginkizun hori partekatuz–, proposamen batzuk landu ditut kulturartekotasunaren ikuspegia *nola aplikatu* argitzeko. Horretarako, *Pluralismo, Multiculturalismo e Interculturalidad. Propuesta de clarificación y apuntes educativos* (Pluralismoa, Kultura-aniztasuna eta Kulturartekotasuna. Argitzeko proposamena eta hezkuntza-oharrak) (2003) dokumentua ekarriko dut lerro hauetara. Idatzi horretan, horri buruzko galderak egiten dira, abiapuntuko planteamen-
duak laburtzen dira, eta eskolako egoeratik iruzkintzen. Testuaren amaieran,

ondorioen atal bat jasotzen da, “hezkuntzaren eta etorkizunaren gaineko azken hausnarketa” deritzona. Han bildutako hamalau puntuak ekarriko ditut hona, “eskolaren eta hezkuntzaren markoan kultura-aniztasunaren ikuspegia oinarritze aldera” sintesi egokia izan daitezkeelakoan:

1. Abiapuntua, ezinbestean, bazterkeriari benetan uko egitea da. Bazterkerian eta bereizkerian oinarriturik ezin da kulturartekotasuneranzko urratsik egin. Musikan edo elikadura-praktiketan, kulturen arteko topaketak alfer-alferrekoak izango dira ez badago borondate irmorik eta eguneroko lanik tratu desorekatuaren, diferenteen banaketa fisikoaren edo bestea indarrez akulturatzearen aurka. Eskola pluralaren, kulturantzunaren eta kulturartekoaren arteko alde nabarmenez harago, denek bat egiten dute puntu horretan: denek arbuiatzen dute bazterkeria. Komeni da beste ideia bat ere gogorra ekartzea: indarrak batzeko eta ez kentzeko.
2. Asimilazionismoa ez da gainditutzat eman behar. Irakasleok berrikusi egin behar dugu eboluzioari, historiari eta garapenari buruz dugun ikuspegia, eta ildo bakarreko ikuskerak gainditu behar ditugu. Asimilazionismoa gainditzea ez da curriculumaren batasuna, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren batasuna, etab., defendatzearen kalterako.
3. Beharrezkoa da kultura-pluralismoa modu koherentean barneratzea, berdintasunaren eta diferentziaren arteko harremanak landuz. Horretarako, premiazkoa da ez nahastea giza berdintasuna/desberdintasuna maila eta antzekotasuna/diferentzia maila.
4. Kultura-aniztasunari dagokionez, komenigarria litzateke kritika eraikitzaile egiteko jarrera hartzea, ikuspegi horrek hezkuntza aldetik dituen ekarpen garrantzitsuak (ezkutuko curriculum gaingaitzea, irakasle elebidunak eta bi kultura dituztenak, etab.) baliatze aldera. Kultura-aniztasunak baditu mugak eta akatsak, bai, baina alferrekoa litzateke, baita gehiegizkoa ere, kultura-aniztasuna eskola-pluralismoaren kontrako dela esatea (Sartoriaren hitzak ekarriz) edo eskolaren gangrena dela adieraztea (Azurmendiren hitzak berrituz).
5. Beti izango da komenigarria kultura-aniztasunak eta kulturartekotasunak zertan bat egiten duten gogoratzea (bazterkeriaren aurkako borrokan, aniztasuna positibotzat hartzean, berdinak eta diferentek izatean, etab.) eta hezkuntza-proiektuei ikuspegi kulturantzuna eta kulturartekoa ematea.
6. Erabakigarria da hezkuntza-komunitateko eragileen artean batzen duenari, komunari, lokarriei berriro heltzea. Haurrek, haur direlako hain zuzen,

ezaugarri komun asko dute, eta are gehiago adin horretan. Gurasoak ikasleen guraso dira eta, oro har, beren seme-alaben heziketarekin interesatuta eta kezkatuta daude, eta, horrez gain, zuriak edo beltzak dira, bertakoak edo kanpokoak, etab.

7. Kulturarteko planteamenduaren paradigma gorantz dator, eraikitzen ari da, eta haren termino bakar bat erabat finkatu eta itxi gabe dago oraino. Horretaz jabeturik, hezkuntza-jarduera bultzatu egin behar da paradigma hori pixkanaka egituratzeko, tarteka huts eginez, tarteka asmatuz, metodologia batzuk eta besteak probatuz, hezkuntza-proiekturako lanabes erabilgarri bihurtze aldera.
8. Hasieran, geure baitarako galdetzen genuen zer alde ote zegoen eskola kulturantzunaren eta kulturarteko eskolaren artean. Hainbat aipa daitezke. Nahiago genuke aurreko orrialdeetan elementu nahikoa eman izana nork bere aldetik alde horiei antzemateko. Nolanahi ere, gure ikuspegitik, honako hau da alderik nagusiena: eskola kulturantzunak ikasgeletan eta inguruko aniztasunean dauden kulturen errespetua eta balioeste positiboa lehenesten du (eta horrek badu nahikoa meritu), eta kulturarteko eskolak, horrez gain, bizikidetzaren elkarlanean nola garatu erakusten du, eta kulturalismoa eta kulturalismoak dakarren diferentziak areagotzea gainditzeko bidea nabarmentzen du.
9. Aurrekoaren ondorio gisa, hezkuntza-proiektu bat –bai eskola-barruti batekoa edo ikastetxe batekoa eta bai zehatzagoa, unitate didaktiko batekoa edo ikasgelakoa– izan daiteke proiektu kulturantzuna edo kulturarteko proiektua, eta hor bai, irakurlearen esku utziko dugu bereizgarri horiek zehazteko lana edo, besterik gabe, ikuspegi hori aintzat hartuta, proiektu jakin horren jarduerak zer-nolako egitasmoren arabera diren zehaztekoa.
10. Beste ondorio bat. Noski, hezkuntzaren esparruan ere bada aldea politika kulturantzunen eta kulturartekoen artean. Oraingoan, aldeak zehazteko lana irakasleen esku ez ezik, hezkuntzako agintarien, arduradun politikoaren, legegileen eta abarren esku utziko dugu. Hori bai, etxeko lan horiek etxean ez (bulegoan, esan nahi da), baizik eta eragilearen parte-hartzearen bidez egiten saiatu behar da.
11. Espero dugu aurreko ataletako analisiak aintzat harturik jabetzea hau ez dela hitz-joko soilak edo izenen inguruko eztabaida hutsa; ikuspegi pedagogiko osoa da kontua, eta aurreko planteamendu interesgarri baina mugatuen gainean aurrera egitea. Kulturarteko ikuspegia, finkatu dugun

moduan, garrantzitsua da batez ere tresna eraginkorra delako zeregin haue-
tarako: a) aniztasunaren baitan eskola-batasunaren alde lan egiteko (era-
kundeen arloan), askatasunaren pedagogia eta berdintasunaren eta elkarta-
sunaren pedagogia lotzeko (pedagogiaren arloan), eta hezkuntza-jarduera
bera eta hezitzailearen garapen pertsonala aberasteko (arloan profesionale-
an).

12. Kulturarteko ikuspegia lan-esparrura eramateak eragin handia du irakasle-
entzat eta maisu-maistrentzat. Hauek dira eraginetako batzuk: tolerantzia
aktiboa *lantzea* (balioen esparruan), etnozentrismoa gainditzea (jarreraren
esparruan), Bestea erneago entzuten jakitea eta hitz egin aurretik jakin-
minez galdetzea (trebetasunen esparruan) eta, komunikatzeko zailtasunen,
denbora- eta baliabide-faltaren eta bestelako eragozpenen gaintetik, ikasge-
lako, eskolako eta munduko aniztasun handiaz gozaten saiatzea (egune-
roko lana betetzeko moduari dagokionez).
13. Eskolak kulturarteko gizartea sortzen lagundu behar duela esaten dugune-
an, zer ekarpen handia egin dezakeen baiesten ari gara (beste esparruetan
eginiko ahaleginekin batera eta haien arteko koordinazioan, betiere), eta,
orobat, adierazten ari gara hezkuntzako lan hori gabe ametsa betetzea ezi-
nezkoa izango dela.
14. Amaierarako utzi dugu mamitsuena, muina bera. Hezkuntzaren esparruko
kulturartekotasunaren ikuspegiak berekin dakar hezkuntzako harremant-
tan eta ibilbideetan pertsoneri, egoerari eta kulturari loturik azaltzen diren
faktoreak bereizten, elkarrekin lotzen eta kudeatzen jakin beharra. Plan,
programa eta proiektuen planteamendu orokorrean, dokumentuetan eta
materialetan eta batez ere irakaskuntzaren eta ikasketaren eguneroko jardue-
nean egin beharrekoa da lan hori” (Giménez, 2003 d, 22-25).

Faktore anitzeko metodologia erabiliko dugu hemen, eta metodologia horri
buruz ariko naiz hurrengo atalean. Pasarte bat hartuko dugu dokumentutik, eta
hona hemen lerro horietan emandako argibideak:

“Irakasle bat haur batekin dagoenean (marokoarra, nigeriarra, ijito espainiarra,
ijito errumaniarra, ijito izan gabe ere errumaniarra, bertakoa, Chamberí edo
Lavapiés auzoko madrildarra, etab.), badaki, oroz gain, adin jakin bateko per-
tsona dela, izaera jakin bat duela eta izaera hori garatzen ari dela, eta ezauga-
rri jakin batzuk dituen bizitzako une batean dagoela. Halaxe azaltzen du bila-
kaeraren eta garapenaren psikologiak. Hor badira jada besteekiko antzekotasu-
na eta diferentzia, berdintasuna eta desberdintasuna adierazten duten hainbat
puntu.

Irakasleak, era berean, badaki, pertsonari loturiko osagai horiez gain, haur eta nerabe horien bizitzetan eta eskola-ibilbideetan badirela beste baldintza batzuk: familia egituratua izatea ala ez, familiak baliabide gehiago edo gutxiago izatea, behar bezalako etxe batean ala etxola batean bizitzea, gurasoak zuzenbide aldetik egoera prekarioan egotea ala ez...). Hor ere, bai baldintza sozial horietan, bai pertsonari loturiko osagaietan eta bai bien arteko eragin-trukean, hezitzaileak jakingo du antzekotasunak eta diferentziak bereizten, eta ez berdintasunekin eta desberdintasunekin nahasten.

Azkenik, ikasle horiek kultura jakin baten esparruan edo eragin-trukean dau den hainbat kulturatan sozializatu dira, eta haien izateko, pentsatzeko, esateko eta jokatzeko modua kulturalki emana da. Eta hirugarren erresuma horretan ere, bat etortzeak, desadostasunak, etab., identifikatuko ditu hezitzaileak. Kulturarteko ikuspegia duen irakasleak jakingo du zer den pertsonari lotua, zer egoerari lotua eta zer kulturari lotua, eta adi aztertuko du alderdi horiek elkarren artean nola jartzen diren harremanetan. Hori eginez, beharbada gehiago lagundu ahal izango die gazteei, eta baita bere buruari ere. Nolanahi ere, garrantzitsua ez da hitza bera (*kulturartekotasuna*, alegia; beraz, ahaztu edo isildu egin genezake behar den beste), baizik eta kulturartekotasunak sortzen duen konpromiso zabala” (idem, 25)

APLIKAZIOA TESTUINGURU KULTURANIZTUNETAKO BITARTEKARITZAN

Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Migrazioa eta Kultura-aniztasuna Programako Bitartekaritza ildoko taldea 1995. urteaz geroztik ari da kulturen arteko bitartekaritza lanean saiakera kontzeptual eta metodologikoen bidez, prestakuntzari begirako jardueren bidez eta esku-hartze esperientzien bidez. Ibilbide horretan guztian, hauek izan dira mugarri nagusietako batzuk: a) Madrilgo Erkidegoko Immigrazioarako Gizarte Bitartekariaren Eskola (EMSI) sortzea proposatu, sortu eta zuzendu genuen lehenbiziko bi urteetan (1995-1997), b) 1997. urtetik hona, hainbat bitartekaritza-zerbitzu kudeatu ditugu; nabarmentzekoa da Madrilgo Udaleko Kulturarteko Gizarte Bitartekaritzarako Zerbitzua (SEMSI): 47 bitartekari eta 5 profesionalen osatutako talde batek lan egiten du zerbitzu horretan²; c) Kulturarteko Bitartekaritza Graduondoko Prestakuntza Ikastaroaren hamabi promozio egin dira 1999. urteaz geroztik; Madrilgo Unibertsitate Autonomikoaren (UAM) unibertsitate-titulua da³, d) gatazkaren ikerketa teorikoa egin da antropologiaren eta etnografiaren ikuspegitik, eta ikerketa horren aurkezpena egin da urtero “Gatazka eta bitartekaritza: kulturaz gaindiko ikuspegia” doktoretza-ikastaroan, e) La Caixa Fundazioari aholkularitza tekniko eta prestakuntza eman zaio Kulturen Arteko Bitartekaritza Sarrerako (114 bitartekari 8 proiektu eta entitatetan bilduta), eta f) hainbat argitalpen kaleratu dira gaiari buruz (Giménez, 1997, 2001 a, 2001 b, 2003 a, 2003 b, 2007, 2008 c).

Ibilbide bizi eta luze horretan, oztopoak oztopo, aurreko kapituluaren azalduko kulturartekotasunaren ikuspegia oso baliagarria izan zaigu kulturarteko bitartekaritza teoria eta metodologia aldetik oinarritzeko, bitartekariak prestatzeko eta bitartekaritza-jarduna bera nondik nora eramanez modu praktikoan zehazteko.

²Esperientzia horren laburpena hemen: Giménez, koord, 2003 a.

³Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Migrazio eta Komunitate Arteko Harremani buruzko Graduondoko Prestakuntza Jardueraren baitan. Ekimena Etorkinen Integrazioarako Zuzendaritza Nagusiak eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoak babesten dute Madrilan, eta Erkidegoko Batzordeak Gaztela Mantxan.

a) Oinarri teorikoak

Kulturarteko ikuspegia kontzeptualizatzeaz bat (ikusitako aurreko kapitulua), kulturarteko bitartekaritza teorizatzen ere joan ginen. SEMSI lanean hasi zenean, kulturarteko bitartekaritzari buruzko lehen definizioa eta ezaugarritzea egiteko saiakera egin genuen: “Hirugarrenek esku hartzeko eredia kultura-aniztasun esanguratsua duten gizarte-egoeretan eta egoera horiei buruz, helburu hauek lortzeko: Bestea onartzea eta alde guztiak elkarrengana gerturatzea, elkarren arteko komunikazioa eta ulertzea, elkarrekin bizitzen ikastea eta bizikidetzatzea, gatazka arautzea eta erakundeak egokitzea, etnia eta kultura aldetik diferenteak diren gizarte-eragileen edo erakundeetako eragileen artean” (Giménez, 1997, 142).

Behin eta berriro azpimarratu dut argi izan behar direla bai izena *-bitartekaritzea-* eta bai *izenlaguna -kulturartekotasuna-*. Bitartekaritzaz ari garela, erabat beharrezkoa iruditzen zait eredu berria eta ereduari loturiko soslai profesionala munduko bitartekaritzaren eginkizun komunean txertatzea. Izan ere, etorkinekin eta ijitoekin solidarioak diren elkarte eta profesionalak sortu dute eredia (eta positiboa da hori), eta elkarte horiek, askotan, ez dituzte aurrez ezagutzen bitartekaritzea orokorraren printzipio, eredu, metodo eta teknikak. Hain zuzen, gabezia horiek saihesteko da beharrezkoa eredia bitartekaritzaren enbor orokorrean txertatzea (Giménez, 2007).

Izenlagunak, kulturartekotasunak, berriz, bitartekaritzea-eredu zeharkako horren berezitasuna ezartzen du. Gure analititik abiatuz, lau berezitasun bereiziko ditugu: a) “tartean diren aldeak diferenteak dira etnia eta kultura aldetik, b) etnia eta kultura aldetik bereizteak eragina du aldean arteko harremanean, c) bitartekariaren kultura-ezagueria garrantzitsua da, eta d) kulturartekotasuna bera helburutzat hartzen da” (Giménez, 1997, 149-153). Nabarmenduko dut, lehenik eta behin, kulturartekotasuna erabiltzen ari garela, bai etnien arteko harremanen *egiazko zentzuan* eta bai gizarte demokratikoan indarrean *beharreko lukeen* harreman-motari buruzko proposamen soziopolitiko eta etikorako *zentzu arauemailean*; bigarrenik, nabarmenduko dut kultura gizartean eta ekonomia politikoan kokatzen dugula uneoro, eta batera jorratzen ditugula diferentzia eta desoreka; eta, hirugarrenik, nabarmenduko dut kulturalismoaren kontrako ikusmoldea hartzen dugula gero eta gehiago.

b) Bitartekarien prestakuntza

Ondo finkatutako aukera teoriko-kontzeptualetan halaxe baita, kulturarteko bitartekarien lanak ere *-lan sistematikoak-* unibertsitate- eta lan-prestakuntza

berezituan oinarritu behar du, eta, ondoren, esku-hartzeen bidez eman behar zaio jarraipena prestakuntza horri. Kulturartekotasunaren ikuspegiak aukera eman digu bitartekariak hainbat gaitan izan beharko lukeen prestakuntzari (bere eskumeneko unitateei) curriculumean behar besteko garrantzia emateko. Besteak beste, gai hauetan: kulturari buruzko ikuskera dinamikoa eta aldakorra, bitartekaritza-lana egiten den pertsonen arteko harreman horretan aurreiritziek eta estereotipoek zer eragin duten identifikatzea, kulturen arteko komunikazioaren eta etnien arteko gatazkaren berezitasunak, pertsonaren, haren egoeraren eta kultura-markoaren artean dauden loturak, nahasita daudenen eremu bateratzaileak eta komunak, etab.

c) Esku-hartze praktikoa eta bitartekari-jarduera

Praktika zehatzaren alderdi askotan adierazten da aztergai dugun kulturarteko ikuspegia. Bi hautatu ditut: nor den bitartekari eta zein metodorekin lan egiten duen.

Gai eztabaidatuenetako bat da ea nor duen ahalmena kulturen arteko bitartekaritzan bitartekari izateko eta nor egin behar duen lan hori. Etnia eta kultura aldetik berezitate eragileen artean egiten bada bitartekaritza, nolako kultura-ezaguera izan behar du bitartekariak? Beste kolektibo batzuek bitartekariaren beraren kolektibora egokitzen dute haren lana; baina, gure taldean, aldiz, nahiago dugu, bitartekariak zer identitate duen eta zein kulturatakoa den nabarmendu beharrean, haren gaitasun profesionala eta izaera komunitarioa eta tokikoa lehenetsi. Lan egiten duten auzoan bertan, auzokideen artean egiten dute bitartekotza gure taldeko bitartekariak, edozein erreferente kultural dutela ere. Etnia eta kultura aldetiko aldagaiek (jokabideak, etnia- eta/edo nazio-identitatea, hizkuntza, erlijioa, arraza, etab.) aparteko garrantzia baldin badute eta bitartekariaren hizkuntza-gaitasuna eta kulturarteko eskumena “gainditzen” baldin badute, hainbat aukera izaten dugu eskueran: dokumentatzea, aholku eskatzea, bitartekaritza beste norbaitekin egitea, hausnarketa-taldera jotzea... edo, bestela, kasua lankide egokiago baten esku uztea.

Moduari dagokionez, erabat kulturalismoaren kontrako kulturarteko planteamendua baliatu dut metodologia espezifiko bat lantzeko. Lankideek egindako lanaren behaketatik sortua da, eta lankideek berek aplikatutako eta praktikan oinarritutako doitze-prozesuan dago gaur egun metodologia. Bitartekaritzarako eredu klasikoetatik ere ikasi dugu: lagundutako negoziazioaren eredu edo Harvardeko eredu deritzona, eredu zirkular narratiboa (Sara Coob) eta transformazio-eredua (Bush eta Folger) aztertu ditugu, eta iruditzen zaigu kulturarteko bitartekaritzan egokiagoa eta erabilgarriagoa dela transformazio-eredua.

“Harvardeko ereduan, eta zehazki Fisher-Ury metodoan, lehenesten da “pertsonak eta arazoa elkarrengandik banatzea” eta “interesei arreta ematea”, eta, aldiz, “Bushen eta Folgerren planteamenduan, harremana eta harremanaren transformazioa da gakoa, eta ideia hori, besteren artean, erreferente oso erabilgarria da kulturarteko bitartekaritzarako” (Giménez, 2001, b). Gatazka garapen pertsonalerako eta sozialerako faktoretzat hartzeak azpimarratu egiten du bitartekaritzak transformaziorako duen ahalmena; izan ere, pertsonen, taldeen eta komunitateen *balioa handitzearen* eta *onarpenaren* bidez bitartekaritzak badu aldatzeko ahalmena, eta hori pizgarri handia da testuinguru kulturaztunetan.

Eklektizismoan erori gabe, metodologia integratzailea landu dugu, testuinguru kulturaztunetan bitartekaritzak duen berezitasunen araberako metodologia, nabarmentzekoak eta ikuspegiak sintetizatuz, harremanak eta komunikazioa aldatzeko / hobetzeko. Metodologia horrek teknika-sorta ugari baliatzeko aukera ematen du. Kulturarteko bitartekaritzarako gida propioa lantzeko bidean, *faktore anitzeko metodologia* proposatu dugu. Metodologia horrek hiru faktore-maila identifikatzen, zehazten eta ezaugarritzen ditu: *pertsonari loturikoak*, *egoerari loturikoak* eta *kulturari loturikoak*. Faktore horiek nahasita eta elkarri lotuta daude bitartekaritza-prozesuetan. “(Pertsona, Egoera eta Kulturaren arteko) lotura konplexuak eta lausoak aurkitu behar ditu bitartekariak, haiekin ohituta egon behar du, eta bitartekaritza-jarduera berri bakoitzak horri buruzko ikasketa-iturria izan behar du” (Giménez, 2003, b).

APLIKAZIOA AUZOETAKO BIZIKIDETZAREN ALDEKO LANEAN

Tokiko dimentsioa erabakigarria da integrazioari eta gizarte-kohesioari begira. Hirietako, barrutietako, auzoetako eta auzuneetako tokiko bizitzan adierazten dira egunerokoan inklusioa eta bazterketa. Auzoetan mamitzen dira hurbiltasunezko eta gertutasunezko harremanak. Migrazio-testuinguruetan, jatorriz atzerrikoak diren pertsonak auzoetako bizitzara biltzea da integrazio-prozesuen osagai funtsezkoenetakoa. Aztergai dugun kulturartekotasunaren ikuspegia zernola izan daiteke erabilgarria auzoetan integrazioaren eta gizarte-kohesioaren alde lan egiteko?

Auzo kulturantzuntetan egindako ikerketa teorikoa eta aplikatua izan da Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Migrazioa eta Kultura-aniztasuna Programaren (PMM-UAM) ildo nabarmenenetako bat. Ikerketa horretan, azpimarratzekoa da ikerketaren (hainbat udalerritako auzoetan eginiko azterketak), prestakuntzaren (migrazioei buruzko gure masterrean eta auzo kulturantzuntzei buruzko antropologia-*practicum*ean sartuta dago gaia) eta esku-hartzearen (PMMtik kudeatutako komunitate-bitartekaritzarako zerbitzuak) artean sortutako sinergia.

Kulturarteko bizikidetzaren nozioak gidaturik aplikatu da kulturarteko ikuspegia auzoetan. Aurreko kapituluan aipatu genituen *bizikidetzaren* nozioaren inguruko kontzeptualizazioak, eta argitu genuen soziabilitate aldetik nola bereizten den *koexistentziatik* eta *aurkakotasunetik* (Giménez, 2005 a). Orain, kulturarteko bizikidetzari buruzko nozio zehatzaz jardungo dugu, hiriarri eta zehazki auzuneei loturik.

a) Kulturarteko bizikidetzaren eta hiriarriak: udal-plangintza baten esperientzia

2003ko irailetik 2004ko abendura, Madrilgo Udaleko Immigrazioaren, Garapenerako Lankidetzaren eta Boluntarioen Zuzendaritza Nagusirako ahol-

kulari-lanetan jardun nuen migrazioari buruzko udal-plangintza bat lantzeko. Lan haiek aurrerapauso bat ekarri zuten kulturarteko bizikidetza nozioa zehazteko eta operatibo bihurtzeko bidean. Espainian, aitzindaria izan zen egitasmo hura: lehenbiziko aldiz, biztanleria osoarentzako (hiru milioi biztanle) plangintza bat diseinatu zen, eta ez soilik etorkinentzako (garai hartan, biztanleriaren %13 ziren, eta, gaur egun, %17). Hala jaio zen *Madrilgo Udaleko 2004-2007 Gizarte eta Kulturarteko Bizikidetza Plana*.

Tokiko politika publiko hori diseinatzeko lanak hasi orduko, beharrezkoa gertatu zen plangintza mamituko zuen kontzeptua finkatzea. Azkenean, *bizikidetza* nozioak bete zuen eginkizun hori; *gizarte- eta kulturarteko bizikidetza* nozioak, zehazki. “Plangintza horren helburua da gizarte- eta kulturarteko bizikidetzaren oinarrian Madrilgo gizartea eraikitzen laguntzea, era horretara gizarte kohesionatua lortzeko; orainaren eta etorkizunaren alde modu bateratuan lan egiteko gai izango den gizartea” (Plangintza, 2004, 27). Kontzepzio hori ardatz hartuta eta kontzepzio horrekin koherentzia gordez, abiatutako jardueraildo, programa eta baliabide bakoitzak hiriko bizikidetzaren ereduarekin eta helburuarekin zer-nolako harremana zuen zehaztu zen. Baliabide berri nagusietako bik izenean bertan hartu zuten izendapena: Migrazioen eta Kulturarteko Bizikidetzaren Behatokiak eta Bizikidetza Eskolak.

Bizikidetza-koexistentzia-aurkakotasuna hirukoaren gainean iradoki dudan tipologia aplikatuz (Giménez, 2005 a), udal-plangintzaren oinarrietan honako hau jaso zen⁴: “Bizikidetza, Plangintza honetan ulertzen den moduan, hobeto ulertzen da koexistentzia erreferentziatzat hartzen bada. Azken hori ez bezala, bizikidetza ez da mugatzen garai eta leku jakin batean aldi berean dauden taldeak izendatzera; aitzitik, talde horien arteko eragin-trukea eta harreman positiboa ere adierazten da kontzeptu horretan. Koexistentzia estatikoa da, eta bizikidetza, aldiz, dinamikoa, egunerokoan eraiki beharrekoa” (2004, 27).

Bizikidetza nozioa honela garatzen da: “Bizikidetzak... esan nahi du *beste batzuen konpainian bizitzea*, eta, “konpainia” izateko, bestearen sentimenduetan parte-hartzea gertatu behar du, kideasuna. Gizabanakoek, familiek eta taldeek gauza asko partekatzen dituzte: interesak, kezak, arazoak, arazo horien konponbideak, itxaropenak, espazioaren erabilera, zerbitzuak eta gizartean bizitzeko behar den oro. Azken batean, *bitzita partekatzen dute*, eta, hain zuzen, bizikidetza aipatzen denean, hori guztia adierazi nahi da finean” (idem; azpimarra erantsia). Eta, horrez gain: “Bizikidetzak, beraz, eskatzen du beste batzuekin denbora eta leku berean egotea, haiekin modu aktiboan eta sormenez *eragin-trukea izatea*, *alderdi komunak haiekin partekatzea*, eta haien artean

⁴Plangintzaren kontzeptu-markoa idazteko lanean Paloma Gómez Crespo eta Dorina Martínez Aranda antropologoek laguntza estimagarria izan nuen. Bi-biak UAMeko taldeko kideak dira.

elkar ulertzea, enpatia izatea” (kulturartekotasunari gehien lotzen zaiona azpimarratu dugu letra etzanean).

Bizikidetzari *sozial* izenlaguna gehitzearekin, berriz, adierazi nahi da bizikidetzaren oro harremani loturik dagoela eta udalek gizarte-erantzukizuna dutela. Eta, horrez gain, aholkularitza lana egin genuen udal-plangintzaren testuan, izenlagun horren kontzeptuzko adiera bat argitu genuen: “(...) helburua da gaizki ulertutako *kulturalismoa saibestea eta gainditzea*; demografia, ekonomia, gizarte eta politika arloetako hainbat egoera azaltzeko *alderdi kulturalaren eragin gehiegizkoa* azpimarratzen duen kulturalismoa, alegia. Baina, Madrilgo gizartean bizikidetzaz ari garela, gizarte-harremanen etnia-arteko alderdia oso kontuan izan behar bada ere, beste alderdi batzuk ere gogoan hartu behar dira” (idem: azpimarra erantsia). Bizikidetzari *kulturarteko* izenlaguna gehitzeari buruz, hauxe genioen: “kulturartekoa da gizarte plural batean aplikatzen delako, eta gizarte horretan *kide guztien arteko eragin-truke positiboa* bultzatu nahi delako, edozein dela ere haien kultura-ezaguera” (idem, 48, azpimarra erantsia).

b) Kulturarteko bizikidetzaren eta auzoak: nazioz gaindiko sare baten esperientzial

Kulturartekotasunaren ikuspegia auzo batera nola aplikatu daitekeen azalduko dut orain, bizikidetzari loturik betiere. Horretarako, Bartzelonako Diputaziorako egindako aholkularitza-lana baliatuko dut. *Good Practices in Citizenship and Coexistence in European Neighborhoods* (CIEN) Europako nazioz gaindiko programaren buru da Bartzelonako Diputazioa. Programa bera Europar Batzordeak babesten du; helburua da gizarte-arazo handiak eta kultura-aniztasuna gainjartzen diren auzoetan bizikidetzaren eta herritartasuna bultzatzeko baliabideak eta jardun egokiak hartzea. 2008ko martxoan amaitu berri da lehen fasea; Manheim (Alemania), Falkenberg (Suedia), Pisa (Italia), Starogard (Polonia) eta Bartzelona (Katalunia) hirietako erakunde askotarikoek parte hartu dute lehen fase horretan. Nire lana izan da kontzeptu eta metodologia aldetik abiatzeko marko bat proposatzea bazkideei, haien ekarriak eta esperientziak jasotzea, eta kohesio aldetik erronka handienak dituzten Europako auzoetan kulturarteko bizikidetzari bultzada emateko eskuliburu bat idaztea.

Irakurleak zuzenean jo dezake eskuliburu horretara. Hemen, gida horren ezauzgarri nagusiak azalduko ditut, eta kulturarteko ikuskerak ezaugarri horietan nola gorputz hartzen duen esplikatuko dut. Kontzeptuzko markoa elkarri loturiko hamabi *premisatan* egituratuta dago, eta, marko horretan, berriz, metodologiako oinarriak finkatzen dira. Kontzeptuen markoa bi ataletan oinarritzen da: a) bizikidetzaren definizioa demokraziari, herritartasunari eta kulturarteko-

tasunari loturik, eta b) aurrez aipatutako soziabilitate-moduen tipologia (bizikidetza, koexistentzia eta aurkakotasuna) auzoetako eta tokiko gizarte-bizitzan hezur-mamitzea. Auzoetako bizikidetza bultzatzeko oinarri kontzeptual horretan, gako nagusietako bat da kultura-aniztasuna eta kulturartekotasuna bereiztea. Aurreko kapituluaren azaldu dugu bereizkuntza hori.

Metodologia-marko bat ere badakar eskuliburuak, elkarren osagarri diren bi ardatzetan oinarriturik. Lehen ardatza: herritarren bizikidetzaren aldeko jarduerara abiatu aurretik egin beharreko *egoeraren diagnostia*. Metodologiarako tresnatzat hartzen dira honako hauek: 1) “Bizikidetzaren, Koexistentziaren eta Aurkakotasunaren Adierazle Kualitatiboen Sistema”; berdintasunaren, diferentziarekiko errespetuaren eta eragin-truke positiboaren dimentsioen bidez zehazten dira adierazle horiek; 2) “Herritarren eta kulturen arteko bizikidetzari buruzko DAFO Analisia”, auzoak eta inguruak dituen ahulune, mehatxu, indargune eta aukeretan kulturartekotasunaren dimentsioa aintzat hartuta. Eta CIEN Proiektuaren metodologiaren bigarren ardatza da *Esku-hartzea diseinatzea eta abian jartzea*. Bigarren ardatz horretan, metodologiarako beste bi tresna jasotzen dira: 3) “Molde orokorra: ezabatu, saihestu, sendotu eta sustatu”, eta 4) “Bizikidetzaren dimentsioak sustatzeko protokolo berezitua” (Giménez, 2008, a).

APLIKAZIOA HERRITARREN HEZKUNTZAN

Gizarte- eta kultura-aniztasuneko prozesu berriek ekarri dituzten erronkak askotarikoak dira. Nazioarteko gizarteari, nazio eta estatuei, eskualdeei, udalerriei eta auzoei, erakundeei, gizarte-elkarteei eta familiei, herritarrei, guztiei eragiten diete. Gizarte-bizitzako maila guztiek dute aurrean erronka bera: *nola bideratu edo kudeatu gizarte- eta kultura-aniztasuna?*

Kulturartekotasunaren ikuspegiak gizabiderako hezkuntzan duen ahalmena agertuko dut orain. Irudi du horren gainean bat datozela guztiak, den-denek oso garrantzitsutzat hartzen baitute gizabidea gizartearen garapen egiaz demokratikoa eta parte-hartzailea lortzeko eta errespetua eta tolerantzia sustatzeko; izan ere, errespeturik eta tolerantziarik gabe, gizarte kulturantzunak nekez arautuko ditu bere gatazkak eta bazterkeriaren, ghettoen, arrazakeriaren eta xenofobiaren eremu izango da. Beharrezkoa da informazioa zabaltzeko, buruzagiak prestatzeko eta topaketak dinamizatzeko ekimenak abiatzea, sentikortze-kanpainak eta abar egitea, era horretara herritarren prestakuntza zibikoaren alde egiteko.

2007. urteaz geroztik lan-eremu horretan jarduteko zoria izan dut; Esplai Fundaziorako, zehazki. Irabazi asmorik gabeko elkarte da Esplai; duela hainbat hamarkada sortu zen Katalunian, eta, gaur egun, Espainia osora zabaldu da. Fundazioaren helburua da herritarren hezkuntzan lan egitea, batez ere gazteekin, eta eremu ez-formalen eta egunerokoen bidez, hala nola astialdi-, kirol-, mendi-irteera eta dibertsio-ekimen eta -espazioen bidez. Hezkuntzaren eta biztanleriaren arteko loturari buruzko hainbat lan egin ditu Esplaiak. Urteak dira Fundazioa zeregin horretan ari dela, eta hor kokatu behar dira lan horiek; nolahi ere, Espainiako gaur egungo gobernuak eta Hezkuntza Ministerioak eskolatan “Herritarrentzako Hezkuntza” ikasgaia abian jartzea erabaki zuenetik eta horrek eragindako eztabaida eta polemika bizien ondotik, azkartu egin da lan horien garapena. Eztabaidak eta polemikak batez ere eskuin politikoaren, eliza katolikoaren eta haien sokako komunikabideen jarrera kritikoaren eraginez etorri dira.

Lan-ildo horrek ekarri duen lehen emaitza “Hezkuntza eta herritarrak” dokumentua izan da, *Eztabaidarako Koadernoak* sortaren baitan. Esplai Fundazioaren Aholkularitza Batzordeak bultzatutako lan-talde batek landu du agiria. Uneotan, bigarren talde bat “Hezkuntza, herritarrak eta migrazioa” gaiaren gainean hausnarketa egiten ari da, eta gogoeta-lan hori dinamizatzea da nire lana. Hausnarketa horren emaitza izango da Koaderno horien 2. zenbakia (Giménez, koord, 2008 b). Saiakera hau ixterakoan, agiria oso aurreratua zegoen. Hiru atal ditu. Lehenbizikoan, herritartasuna nola ulertu jorratzen da, herritartasunaren dimentsio juridiko-politikoan eta dimentsio zibiko-sozialean, migrazioek herritartasunaren egikaritzean nola eragiten duen planteatzen da, eta Espainiako kasuak dituen berezitasunei buruz lan-taldeak eginiko gogoetak laburtzen dira. Bigarren atalean, erronkei eta aukerei buruzko diagnosi partekatua azaltzen da, herritartasuna/immigrazioa uztarrian. Azkenik, hirugarrenean, hezkuntza-ekimen adostu bateranzko proposamenak jasotzen dira, eta hezkuntza-arloko ekimen arduratsu eta adostu horren printzipioak, subjektuak, edukiak, esparruak, hezkuntza-ereduak (eredu horien artean, kulturarteko hezkuntza) eta pedagogia-metodologiak zehazten dira.

Beste behin ere, irakurleak badu aukera idatzi horretara jotzeko; hemen, besterik gabe, kulturartekotasunaren ikuspegia nola aplikatzen saiatu naizen erakutsiko dut. Lehenik eta behin, migrazio-testuinguruaren aldetik hezkuntza eta herritartasuna lotura nola egin asmatzeko apustuari begira, oso garrantzitsua da herritarrak sentikortzea jatorriz atzerrikoak diren pertsonak baztertzeko testuinguruak, egoerak eta prozesuak (prekarietate juridikoa eta irregulartasuna, laneko esplotazioa, etab.) direla medio, kultura eta erlijio aldetiko diferentziak erasorako armatzat baliatzen direla. Hori dela eta, berdintasun-politikak (eskubide, betebeharrak eta aukeren berdintasuna lortzeko politikak) ezinbestekoak direlako kontzientzia zabaldu beharra dago; ezinbestekoak direlako bere horretan eta gizarte-justiziaren osagai diren aldetik, eta ezinbestekoak gizarte plural eta kulturartekoa sustatzeko.

Bigarrenik, Esplairekin landu genuen dokumentuan garrantzitsua da, orobat, immigratu duten taldeen kultura eta identitatea errespetatzeko ikuspegia. Paradigma horren barruan diferentzia errespetatzeko printzipioaren ikuskerarekin koherentzia gordez, zerbait zabalagoaren baitan biltzen da errespetua; gizartean egon eta giza eskubideak eta marko demokratiko konstituzionala ukatzen ez dituzten identitate guztien errespetuan, hain zuzen. Gogoeta horren harira, dokumentuko bi ideia azpimarratuko ditut. Alde batetik, Espainiako gizarte osoaren kultura-ondarea (hizkuntza- eta kultura-aniztasun aldetik bereziki aberatsa) harrotasunez bereganatu behar dute herritar guztiek; hau da, bestearen berezitasuna errespetatu ez ezik, guztiok elkarrekin kultura-ondare orokorra positibotzat gureganatu behar dugu. Eta, bestetik, gizarte- eta kultura-

aniztasuna, bai immigrazioaren aurrekoa eta bai immigrazioak ekarritakoa, ondo kudeatuz gero, ekonomia-, gizarte- eta politika-garapenerako faktore bihurtzen da.

Azkenik, kulturartekotasunaren ikuspegiak alderdi komunean egiten duen azpimarra begien bistako bihurtzen da Esplai taldearen proposamenean; izan ere, pertsonak eta herritarrek, edozein dela ere beren identitatea eta kultura, asko partekatzen dute (giza eskubide oinarrikoak, ekonomia-garapena, lan-munduan duintasunez sartzea, gizarte-ongizatea, tokiko bizitza, parte-hartzeko beharra, etab.), eta ideia hori hezkuntza-jardueran jasotzen du Esplairen proposamenak. Konbergentzia-marko horrek leundu egiten du *herritar-identitatea* azpimarratzeko bidea, eta halaxe egiten du dokumentuak berak ere. Elkartzeko eginkizunaren aldetik, herritar-identitatea eta kultura-identitatea ez dira kontraktat agertzen –lehenak kohesioa sortzen du, eta bigarrenak ez–, baizik eta elkarren laguntzaile, aniztasunean gizarte batu bat eratzeko ahalegin horretan.

Aplikazio-prozesuari buruzko azken oharra

Kasuan-kasuan ideia nagusia testuinguru eta esperientzia bakoitzera berariaz egokitzen joan ginen. Hartutako ikuspegia aplikatzeko, edozein prozesutan urrats ezinbesteko batzuk agertzeko egokiera da hauxe, beharbada.

Aplikatzeko metodologiaren bizkarrezurra da aipatutako hiru printzipio nagusiak aintzat hartzea; lehenbizi, bakoitza bere aldetik, eta, ondoren, hirurak batera: berdintasuna, diferentzia eta eragin-truke positiboa. Horren adibide, printzipio bakoitzari buruzko galderak zerrendatuko ditut:

- a) *Berdintasuna*. Kulturartekotasunaren ikuspegia eman nahi diogun ekimean nola adierazten da berdintasuna? Berdintasunaren aldeko apustu horrek nola laguntzen dio tolerantziari? Berdintasunaren aldeko eta bereizkeriaren kontrako jarduerak nola bultzatzen dituzte elkarguneak?
- b) *Diferentzia*. Diferentziarako eskubideak eta aniztasunaren balioeste positiboak zer leku hartzen dute? Nola konbinatzen da eskubide hori berdintasun-politikak nabarmentzearekin? Nola zehazten da aniztasunaren errespetua eta alde komuna berrestea bateragarri izatea?
- c) *Eragin-truke positiboa*. Partekatzen den horretan egindako azpimarra eta eragin-trukea errazteko eta hobetzeko jarduerak bildu dira programara? Horrek nola indartzen ditu berdintasunerako eta desorekaren kontrako borrokarako bideak? Errespetua nola gauzatzen da proiektu komunaren indartzean?

Egilearen lanak (testuan aipatuak)

- Giménez C., 2008 a) *El impulso de la convivencia ciudadana e intercultural en los barrios europeos: marco conceptual y metodológico*, CIEN Proiektua, Bartzelonako Diputazioa.
- 2008 b) Koord. *Educación, ciudadanía e inmigración*, in Cuadernos para el debate, 2, Esplai Fundazioa.
- 2008 c) eta Pilar García, koord. *La mediación intercultural en Castilla la mancha. Un manual de casos*, Gizarte Ongizaterako Zuzendaritza Nagusia, Gaztela Mantxako Erkidegoen Batzordea.
- 2007 “Cómo hemos llegado y por qué estamos aquí. Etapas, retos, oportunidades y riesgos de la mediación intercultural” in *De@Acuerdo*, bitartekaritza zabaltzeko aldizkaria, Kulturarteko Bitartekari I. Topaketari eskainitako monografikoa, 2007ko martxoaren 9tik 11ra, Valentzia.
- 2005 a) “Convivencia: conceptualización y sugerencias para la praxis”, in *Puntos de Vista*, 1 (2005eko apirila-maiatza), Madrilgo Hiriko Migrazioen eta Kulturarteko Bizikidetzaren Behatokia, Madrilgo Udaleko Lan eta Herritarren Zerbitzu Saila, 7-32.
- 2005 b) “Polítiques locáis per millorar la convivencia ciutadana”, in *Cuadernos Migrainfo*, 15 (2005eko bigarren hiruhilekoa), Bartzelonako Diputazioko Aniztasun eta Herritartasun Politiken Zerbitzua.
- 2003 a) Koord. *El servicio de mediación social intercultural SEMSI. Una experiencia de mediación comunitaria en el ámbito de las migraciones y la convivencia intercultural*, Madrilgo Udala.
- 2003 b) “Planteamiento multifactorial para la mediación e intervención en contextos multiculturales: una propuesta metodológica de superación del cul-

turalismo”, in CASTAÑO F.J.; MURIEL, C. (arg.): *Congreso sobre la Inmigración en España*, II. liburukia, Kulturarteko Ikasketen Laborategia, Granada, 627-643.

2000 *Guía sobre Interculturalidad. Segunda parte. El enfoque intercultural en las políticas públicas para el desarrollo humano sostenible*, in Cuadernos Q'anil bilduma, 2, “Kulturartekorasuna, politika publikoak eta giza garapen iraunkorra” programa, NBGP - Guatemala /97/015, Guatemala.

2001 a) Irene Molina, Antoine Gailly eta Barbara Guest: *Social Limworking and Intercultural mediation in Europe*, De Parnersskap fór Multiesnik Integración PFMI, Umeako Unibertsitatea, Suedia.

2001 b) “Modelos de mediación y su aplicación en mediación intercultural”, in Migraciones aldizkaria, 10, Comillasko Unibertsitatea.

1997 “La naturaleza de la mediación intercultural”, in Migraciones aldizkaria, 2, Comillasko Unibertsitatea.

